



Dibortzioa krisi garaian

Irtenbide
merkeenaren bila

Heyman Vázquez

Erdialdeko
Amerikatik
AEBetara doazen
emigranteen
laguntzailea

Sergi Pàmies

«Literatura
katalanean
esfortzua jada
ez da militantea,
industrialia da»

Maria Bayo

sopranoa

«Ahaztu zaigu
kantatzea
konpartitzea dela»

Net Hurbil

Bi urteren
ostean, Haitiren
berreraikuntza
norabide
okerrean

TXILLARDEGI
herrigilea

**Aste
honetan...**



► Beranduegi datorren albistegia

Gorka Bereziartua eta Unai Brea kazetariak, astero bezala, ironiaz betetako begiratu zorrotza egin diote azken egunetako aktualitateari.



► Nafarroako euskarazko hedabideak larri

Urterik onenean Nafarroako Gobernuak 230.000 euroko diru-laguntza eman die. Aurten zero euro jasoko dute. Kolpea ez da izango neurri berekoa hedabide guztientzat, baina batzuk kinka larrian izango dira.



► Bizitza irakasten dugu

Rafeef Ziadah-k, palestinar jatorriko kanadiar inprobisatzaile eta aktibista, Gazako gazteriari eskainitako olerki hunkigarria.



Lesakako Atxaspi hotelean 2 lagunentzako asteburu pasa ederra gordeta daukagu Beranduegiren Facebook-eko horman bideorik onena jarri eta *atsegin dut* gehien jasotzen duenarentzat.



www.argia.com

www.beranduegi.tv



Azaleko argazkia:
RUBEN PLAZA
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produkzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iarnetza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera >



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguana



• **NON ZER** •

2012ko urtarrilaren 22a, 2.307. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Mixel Berhocoirigoin:** «Pertsonak transbertsalak gara». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **Dibortzioa krisi garaian.** Banantzea garesti ordaintzen da. IRATI SARASUA ARABOLAZA / 5

Pertsonaia

- **Maria Bayo:** «Gure merkatuan ez dute beti irizpide objektiboak agintzen». SUSTRAI COLINA / 10

Gaiak

- **Heyman Vázquez:** «Etorkinen erregularizazio juridikoak gehiegikeria asko desagerraraziko lituzke». HARTZEA LOPEZ ARANA / 16

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Amayak. BEÑAT SARASOLA / 18
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENTA / 19
- **Inora ez garamatzen tren.** AINHOA LARRAÑAGA / 20
- **Txandan** Agintariak. JUANRA MAKUSO / 20
- **Oilo bustia ala hartza.** OIER ARAOLAZA / 21
- **Hiruko txikian** Autobusa. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Zirtak** Ezintasunaren katalogoa. JULEN GABIRIA / 22
- **Bertso berriak** Izeba Bittoriri jarriak. AGIN REZOLA / 24

Erdiko kaiera

- **Sergi Pàmies:** «Idatzi baino ezin egin daitezkeen gauzak idazteko borondatea dub». ARITZ GALARRAGA / 25
- **Matxura:** «Amorrua adierazteko elektronika oso ona da». IKER BARANDIARAN / 28
- **Euskal Kulturaren Urtekaria.** Labirintoan ez galtzeko gida. GORKA BEREZIARTUA / 30
- **Liburuak** IGOR ESTANKONA / 32
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 33
- **Ezpalak** JON TORNER / 34 • **Abarrak** MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 35
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 36
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 38
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 39
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 40

Termometroa

- **Txillardegia.** Hil da herrigilea. GORKA BEREZIARTUA / 41
 - **Iritziak.** BALEREN BAKAIKOA AZURMENDI, JUAN MARTIN ELEXPURU, JON SARASUA, EMILIO LOPEZ ADAN / 43
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46
- **Maltzagatik** XABIER LETONA / 47
- **Net Hurbil** Haiti 2010-2012: ez laguntzarik, ez esperantzarik. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Ajuria Enea.** KIKE DIEZ DE ULZURRUN SAGALÁ / 50



“Pertsonak transbertsalak gara”

Mixel Berhocoirigoin

“Ni bizi naiz baserrian...”.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Gaizka Iroz

Hara militante nekagaitz bat indibidualismoaren aroan!

Enetzat plazer bat da, hastapenetik programatua zen behar natural bat. Ez dut militantzia errazik ezagutzen, baina inplikatu ezean, egoerak nekez egiten du hobera. Indibidualismoa liberalismoaren deklinabidea da.

Esadazu auzolanak askatuko gaituela.

Auzolana bizitza soziala ahalbidetzen duten lurralde eta laborantza moldeetan baizik ez da posible. Laborantza industrializatuan ez dago harreman sozialik, beraz auzolanik ere ez.

Hasi gara sistema salatzen!

Sistemak dena deshumanizatzen du, orori balore ekonomiko eta finantzieroa emanaz. Erruak banatzeko tenorean, alta, pertsonak dira kulpabilizatzen.

Zer diren gauzak, bizitza osoa instituzioekin borrokan, gero Euskal Herriko Laborantza Ganbara sortzeko!

Gu izan gabe ezin dugu besteekin harremanik izan, eta izateko gure tresnak behar ditugu. Tresna horiek eraiki ezean ez gara, eta besteak baldin badira eta gu ez, menpekotasun harreman batean sartzen gara.

Musulmanak Mekara nola, Euskal Herriko laborari guziak Ainhize-Monjolosera begira jarri dituzue?

Ez da ez erraza ez naturala Araba edo Bizkai-ko laborari bat Ainhizera so ezartzea. Oraingoz, zentzu horretan antolatzen ditugunak konbikzioz antolatzen ditugu, ez baitezpada naturaltasunez. Agian, egungo lanari esker, bihar naturala izanen da.

Zuentzat estatuaren aurkako kalapita da naturala.

Oraindik ez dakit kalapitak gertatu dena Euskal Herrian gertatu delako ala egitura publikoaz aparteko beste egitura paralelo bat sortu dugulako izan ditugun. Pentsa, estatuaren arkitektura gainbehera botatzeko bidea markatzea leporatzen ziguten!

Botere politikoari bataila irabazteagatik zorionak, baina botere ekonomikoari ere egin beharko zaio aurre, ezta?

Errealitate bat nagusitzean ez da beti besteen hutsa, norberea ere bada. Boterearentzat ni ekoizlea naiz eta zu kontsumitzailea, baina ezin ditugu ideia berdinak partekatu? Kategoria bertikaletan sailkatu nahi gaituzte, baina pertsonak tranbertsalak gara.

Barkatuko didazu, baina ez dakit sindikalista edo politikari baten hitzak diren horiek.

Enetako sindikalismoa izan da politika egiteko manera eraginkorrena. Alta, beti errefusatu dut alderdi edo hautagai politiko baten alde publikoki deitzea. Bakoitzak pentsa dezala gure eguneroko lanak zer norabide politiko duen.

Orain ulertu dut, politikarako jauzia prestatzen ari zara!

Ez dut baztertzen baina... Laborantza Ganbara sortu baino bi urte lehenago ez genekien halakorik egingo genuenik eta bideak egin digu argi. Espero dut hemen-dik bi urtera eginen dudanera ere bide berak eramanen nauela, ez naizela bidez aldatuko. ■



Dibortzioa krisi garaian

Banantzea garesti ordaintzen da

Egoera ekonomikoak gizarteko alor guztietan bezalaxe eragin du dibortziazeko orduan ere. Dibortzio kasuak ez dira jaitsi, baina larritasun ekonomikoak behartuta aterabide berrietara jo dute bikotekide bananduek; muturreko soluzioa, etxe berean bizitzen jarraitzea.

IRATI SARASUA ARABAOLAZA

Argazkiak: Dani Blanco



Dibortziatu ostean etxe berean bizitzen jarraitzea beste erremediorik ez du hainbat bikotek. Ez da konponbide egokia, Yolanda Gumbao gizarte laguntzailearen esanetan: "Bikote batek banantzea erabakitzen badu, etxea indarkeria gun e bihur daiteke une horretatik aurrera. Horregatik, egokiena bata bestearengandik ahal bezain laster aldentzea izaten da".

“NIRE GURASOEK dibortziaztea erabaki zuten unean elkarrengandik aldentu izan balira, eta etxe ezberdinetan bizitzea lortu izan balute, gaur egun nire aitarekin dudari harremana askoz hobea izango litzateke, ziur”, dio bere izena eman nahi ez duen 21 urteko alaba hernaniarrak. Gurasoak bananduta izan arren, etxe berean bizi dira hirurak, duela bi urtetik. Krisiak mundua astindu zuenetik, egoera bertsuan aurkitzen dira hainbat familia: etxea saldu ezinik, ezin diote hipoteka berri bati ekin eta norbaitek pisua erosi bitartean —epe motzean lortuko duten esperantzan—, elkarbizitza aterpe berean mantentzea erabakitzen dute, beste irtenbiderik ezean.

AGIPASE Gipuzkoako aita eta ama bananduen elkarteko gizarte laguntzailea da Yolanda Gumbao; azpimarratu digunez, etxe berean bizitzea ez da konponbide egokia: “Bikote batek banantzea erabakitzen badu, etxea indarkeria gune bihurtu daiteke une horretatik aurrera. Horregatik, egokiena bata bestearengandik ahal bezain laster aldentzea izaten da”. 21 urteko hernaniarrak egoera deseroso hori bizi du egunero, duela bi urtetik; etxera heldu, eta aita leku batean dagoen bitartean ama bestean egoten da. Ez daramate familia baten bizimodua eta behar-beharrezkoa baino ez dute hitz egiten. Sostengaezina dela adierazi du, eta ikasketak etxetik kanpo egiteak errealitate horretatik aldentzeko aukera ematen diola: “Gogorra da horrela bizitzea, zure gurasoek elkarri begiratzen ez diotela ikusten baituzu, eta gainera, azkenean nahigabe zu ere beraien arteko eztabaiden parte izaten zara, bata gauza bat esaten dizulako eta besteak bestea. Ni aitarengandik izugarri urrundunaiz, eztabaida asko izan ditugu egunerokotasuneko gauzengatik eta gure arteko harremanak nabarmen egin du okerrera”.

Krisi ekonomikoa testuinguru, zaila izaten da beste pisu bat erostea edo alokatzea eta sarri senide edo lagunak etxera joaten da bizitzera bikotekideetako bat. AGIPASE elkarteak aita bananduentzako pisuak jarri zituen martxan duela urte gutxi, baina ez dute pertsona askorentzako lekuri eta beraz ez da hain irtenbide ona suertatu. Gumbao gizarte laguntzailearen arabera, gizonak izaten dira dibortzioan, seme-ala-

Batez ere krisiak bultzatuta, beste irtenbide bati ekin dio hainbatek: haurra ohiko etxebizitzan geratzen da beti eta gurasoak dira etxe horretan bizitzeko txandakatzen direnak

Haurraren zaintzaz arduratzen den bikotekide ohiari pasa beharreko pentsioaren kopurua aldatzea eskatzen du zenbaitek, diru-sarreretan murrizketa jasan duela-eta

bak badituzte behintzat, ekonomikoki kalte-tuenak. Kasuen %90ean emakumea da haurrekin geratzen dena, eta haurra eta haren zaintzailea geratzen dira familiaren etxebizitzan. Gizonak alde egin behar izaten du etxetik, beste etxe baten hipoteka ordaindu

behar izaten du eta familiaren etxebizitzaren kargu jarraitzen du hein batean, titularretako bat bera delako. Horrez gain, seme-alabak 18 urte egin edo ikasketak amaitu arte, pentsioa ordaintzea derrigorrezkoa zaio. “Nik 18 urte baino gehiago ditut, baina ikasketak bukatu bitartean aita pentsioa ordaindu beharko dit, legeak hala dioelako, eta ordaindu beharrekoa amarekin adostuko

du. Diru kontuak dibortzioetan arazo nagusi bilakatzen dira eta eztabaida askoren muina dira”, berretsi du hernaniarrak.

Esan bezala, kasu ia denetan amak hartzen du seme-alabaren zaintza bere gain, baina haurraren zaintza partekatzea adosten hasi dira geroz eta bikote banandu gehiago. Hala, biek eskubide berdinak dituzte umearen heziketan eta biek dute haurrarekin denbora luzez egoteko aukera. Batez ere krisiak bultzatuta, zenbaitetan beste irtenbide bati ekin dio hainbatek: haurra ohiko etxebizitzan geratzen da beti eta gurasoak dira etxe horretan bizitzeko txandakatzen direnak —bi astero, adibidez—. Adituen ustetan, ordea, kaltegarria da banandu berri den bikotearentzako, eztabaida gehiago eragin ditzakeelako. Azken finean, dibortziazteko erabakia hartu aurretik harremana egokia ez bazen, etxea diskusio gehiagoren iturri izan daiteke sarri askotan.

Prozesu bi

Dibortzio tasa mantendu egin da azken urteotan, ez gora ez behera. Baina elkarteko abokatu batek azaldutakoaren arabera, egoera ekonomikoak badu

ondoriorik banaketa prozesuan. Bi dibortzio mota daude: adostutakoa eta adostasunik gabea. Adostasuna dagoenetan, bikoteak abokatu eta prokuradore bat kontratatzen ditu, eta etorkizuneko bizitza edo eginbeharrak adosten dituzte, hau da, hitzarmen bat egiten dute, irabazpidezko ondasunen likidazioarekin edo gabe. Hori osatuta dagoenean, dibortzio eskaera aurkezten zaio epaileari, adostutakoa azaltzen duen hitzarmenarekin; ez da epaiketaren beharrik izaten. Epaileari eskaera aurkezten zaionean tartean haurrak

badaude, ministerio fiskalak kasua aztertzen du, baina ez da tramite luzea izaten, hilabete baten buruan lor daiteke dibortzioa horrelako kasuetan. Azken finean, bikotea bera da beraien etorkizuneko bizitzaren egitura zehazten duena; eurek erabakitzen dute bai aitak eta bai amak zenbat denbora izango duen haurra ikusteko, zenbatekoa izango den pentsioa, etxea noren esku geratuko den...

Adostasunik gabeko dibortzioetan, abokatu eta prokuradore banak hartzen dute parte. Bikotekide batek dibortzio eskaera aurkezten du, berak eskatzen duena agiri batean azalduta, eta besteak ezezkoarekin erantzuten dio orrialde horri. Beraz, epaiketara jotzea izan ohi da hurrengo pausoa. Luze jotzen duenez, dibortzioaren epaiketa egin bitartean bete beharrekoa arautzen da beste epaiketa batean. Epaileak hartzen du azken erabakia, aldeetako baten mesedetan edo erdi-bitarteko epaia ebatziz. AGIPASEko abokatuak onartu duenez, dibortzioa berez da ekintza traumatikoa, betiko izango dela pentsatzen duzun zerbait amaitzen delako, baina adostasunik gabekoa askoz ere mingarriagoa da, prozesua gogorragoa delako eta epaiketa nekagarria delako oso. Bana- ketak berak, premia ekonomikoek eta aba-

rrek sortzen dituzten haserre eta frustrazioei aurre egiteko, laguntza psikologikoa eskaintzen du elkarteak. Tratu txarren zantzuak egonez gero ere, dagokien instituzioekin eta terapia psikologikoekin beharrezko neurriak hartzen dituzte berehala.

Kontuak kontu, azken urteetan gora egin du adostutako dibortzioen kopuruak eta krisi ekonomikoak eragina izan dezakeela uste dute elkarteak. Azken finean, adostu gabeko dibortzioetan bikoitza ordaindu behar izaten da eta luze jotzen duen bidea da. Horrez gain, adostutako negoziaketetan, lehen gertatzen ez zen fenomeno bat ematen ari da: dibortziotik denbora batera, haurraren zaintzaz arduratzen den bikotekide ohiari pasa beharreko pentsioaren kopurua aldatzea eskatzen du zenbaitek. Horretarako, epailearen aurrean frogatu beharko da soldatan edo diru-sarreretan murrizketa jasan duela eta ekonomikoki estututa ikusten duela bere burua. Epaileak hala berretsiz gero, egoera ekonomiko berrira egokituko luke pasa beharreko pentsioa.

Bestalde, eta bitxia dirudien arren, krisiaren ondorioz iruzurrak areagotu direla azpimarratu du AGIPASEko abokatuak, dibortzio faltsu deiturikoak egiten dituztela, alegia: "Askotan, ofiziozko abokatu gisa

EGIZU HARPIDETZA EGIOZU HARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 138 € / Ipar Euskal Herrian 168 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonia

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SELORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Báimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

ZELOPARRA
HERRIA (P.N.)



Dibortzioa bideratzeko abokatua kontratatzea 3.000 euro inguruko gastua izaten da, baina elkarteko abokatuek 1.500 euro baino gutxiago kobratu ohi dute.


bikote batekin lan egitea egokitzen zaizu, eta lehenengo unetik ohartzen zara beraien helburua ez dela benetan banantzea, dibortzio paperak lortzea baizik, erakundeetatik diru-laguntzak lortu ahal izateko, baina gero batera bizitzen jarraituko dutela”. Hain zuzen, gerora hainbat bikotek iruzurra onartu izan diotela diosku abokatuak. Aita edo ama banandua izateagatik eta umea zaintzapean izateagatik, instituzioen laguntza jasotzen da.

Izapideen kostuak

Eskaintzen dituen zerbitzuen artean, aholkularitza fiskala eta zerbitzu juridikoa ematen du AGIPASEk. “Hona jende asko etortzen da, batzuk bikotea mantendu eta bikote-harreman ona eduki ahal izateko aholku bila, eta besteak dibortzioa tramitatzera”, diosku Yolanda Gumbaok. Dibortzioak elkarteetatik tramitatzeko bakoitzak bere kabuz egitea baino askoz merkeagoa da. Dibortzioa bide-

Dibortzio faltsuak ugaritu dira, aita edo ama banandua izateagatik eta umea zaintzapean izateagatik instituzioen laguntza jasotzeko

ratzeko abokatua kontratatzea 3.000 euro inguruko gastua izaten da, baina elkarteko abokatuek 1.500 euro baino gutxiago kobratu ohi dute. Gizarte laguntzailearen hitzetan, askotan neurrigabeko prezioak ordaintzen dira dibortzioen izapideengatik, ezjakintasunak eta desesperazioak bultzatuta jendea edozein prezio ordaintzeko prest egoten baita batzuetan. “Behin gizon batek 18.000 euro ordaindu zituela esan zidan. Horretara iritsi aurretik, abokatuak orduko zenbat eskatzen duen galde-tzea da egokiena eta prezioen konparaketa egitea, hau da, hainbat abokaturen prezioak alderatu eta ondoren erabaki-tzea. Ezinegonak bultzatuta erabakiak azkar hartzen dira, eta hori ez da ona”. Batez beste, elkarte gipuzkoarra astean bost bat familiaren dibortzioaz arduratzen da, hots, urtean 600 familia inguru pasatzen dira bertatik eta gehienetan dibortzio tramiteak egin behar izaten dituzte.



"Nire gurasoek dibortziatea erabaki zuten unean elkarrengandik aldentu izan balira, eta etxe ezberdinetan bizitzea lortu izan balute, gaur egun nire aitarekin dudan harremana askoz hobea izango litzateke, ziur"

ALABA HERNANIARRA

54 urterekin banandu berri den emakume donostiar batek esan digunez, prozesu gogorra izan da, baita ekonomikoki ere: "Bikotekide ohiak eta biok duela zenbait hilabete erabaki genuen banantzea. Trami-

teak egiteko abokatu bana hartu dugu, eta bakoitzak 1.000 euro inguru ordaindu beharko dizkiogu gure abokatuari". Horrez gain, etxea saltzea asko kosta zitzaien, eta azkenean prezioa izugarri jaitsi behar izan zuten. Batera zuten etxebizitza horretako %70 emakumearena zenez, saldutakoan lortutako diru-kopuruarekin etxebizitza berria erosteko aukera izan du berak. Senar ohiak aldiz, senideei eskatu die dirua, hipoteka berri bati ekin ahal izateko. Batera duten alabari aitak pentsioa pasa beharko dio 25 urte egin bitartean, baina eman beharreko diruaren inguruko adostasunik lortu ez dutenez, epailearengana jotzea erabaki dute, eta horrek prozesua garestituko du.

Berez erabaki zaila da dibortzioarena, ez dago dudarik, baina egoera ekonomiko gogorrean dagoen jendearentzako oraindik lazgarriagoa da. Ez dago konponbide samurrik, latza da etxe berean bizitzen jarraitu behar izatea, senide edo lagunaren atea jotzea, bi hipotekaren ardura hartzea... eta bizitza berri bati ekitea. Adituen esanetan, dibortzio kopurua mantendu egingo da datozen urteetan eta hala bada, garbia da ondorioa: krisi garaioan, zailtasun ekonomikoek are mingarriagoa egingo dute banaketa. ■



Aktualitatearen alde ezberdinak konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea



Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**

sustapena@argia.com · 943 37 15 45

Maria Bayo

«Gure merkatuan ez dute beti irizpide objektiboek agintzen»

“... Kantatu nahi dut bizitza, usteltzen ez bazait hitza...”.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Zer oroitzapen duzu Fiteroko serorekin solfeotan eta kantuan hasi zen neskato hartaz?

Fraideak eta serorak ziren musikaren atea ireki zitzaketen bakarrak. Heziketa musikala heziketa orokorraren zati ezinbestekotzat zeukaten. Eliza katolikoak mantentzen zuen jakintza horren taupada bizirik, nahiz eta Alemaniara ikastera joandakoan, eliza protestantea musikaren alde eliza katolikoa baino askoz sutsuago ari zela jabetu. Oso gizarte mugatua zen. Fitero bezalako herri-ka batean ez zegoen operaren berri izateko modurik, inork ez zuen irudikatzen zer zen kantatu karrera bat edo ibilbide artistiko profesional bat. Gurean ez zegoenez, amonarenera joaten ginen telebista ikustera, baina denbora pasatzeko beste jarduera batzuk zeuden. Jendea irekiagoa zen, kantura ateratzen zen, eta muinean, mementoa partekatu nahia zegoen. Orain oso indibidualistak izan nahi dugu, oso gurekoiak, baina ahaztu zaigu kantatzea konpartitzea dela, eta txitean-pitean, harremantzearen onurak galtzen ari gara. Harremanen gainbeherak etika galtze orokorra ekarri du, eta ikusi besterik ez dago zenbat diru-desbideratze eta ustelkeria eskandalu lehertzen diren. Bere onura eta kalteekin, beste gizarte bat zen hura. Nik beti izan ditut kanturako berezko gaitasunak, baina 17 urterekin Iruñera kontserbatorioan izena ematera abiatutakoan, klinika unibertsitarioko puerikulturaren ere matrikulatu nintzen. Orduan, jendeak musika osagarritzat zeukan, inork ez zuen pentsatzen ezer serioa zenik, ukitu exotikoa zeukan profesionala baino gehiago. Espainiako Estatuan, gainera, musikak ez zeukan irteera profesionalik: ez zegoen orkestrarik, ez zegoen kontzertu gelarik, ez zegoen operarik...

Eta ez zen gaur bezainbateko zarata eta zalapartarik izango.

Okerrena da ez garela konturatzen. Beste herrialde batzuetan kontzientzia handiagoa daukate, baina Espainian nabilerarik afrusa da. Hitz egin ere ozenago egiten da, bolumena igo gabe elkar ulertzerik ez dagoelakoan. Ez gara kutsadura akustikoaren kalteez jabetzen, ez gara ohartzen arreta zenbat mugatzen digun, zenbateraino eragozten digun musikaren altxor txikietara iristea. Hariari tiraz, zergatik da gutxiengo bat musika klasikoaren zalegoa? Inork ez duelako hori bul-tzatzen, medioetan ez delako musika klasikoaren berri ageri, zentro komertzialetako ildo musikaletan modako taldearen *txunba-txunba* entzuten delako... Noizko musika klasikoa? Jendea hezi behar da, eremu zenbait deskubrituarazi, begi-buruak ireki. Eguneroko albistegietan ez balego ordu laurdeneko futbol tarterik nor joango litzateke futbolera?

Nortasun agiria

1958ko maiatzaren 28an sortu zen Fiteron. Iruñeko Pablo Sarasate kontserbatorioan hasitako ikasketak Alemaniako Detmold-eko Hochschule für Musik eskolan borobildu zituen. Errepertorio zabal bezain anitzeko soprano entzutetsu honek lan izugarria egin du obra ez hain ezagunen berreskurapenean, bere ahots eta sentiberatasun artistikoak munduko antzoki ospetsuenetara eraman dutelarik. 2002an Vianako Printzea saria jaso zuen, 2009an Espainiako musika Sari Nazionala, eta 2011n Eusko Ikaskuntza saria.





Tristea da heziketa musikala eta kulturala tokian tokiko zale apasionatuen borondatearen esku uztea. Talante politikoari lotutako irizpide sorta zehatza sustraitu behar litzateke, politikariak etekinak bere legegintzaldian nahi dituela ahaztuta. Kontua ez da dominak paparrean jartzea, denen onura lantzea baizik. Politikariei argi esan behar zaie areto bat kulturaren esku jartzea ez dela meritu bat, euren eginbearra baizik. Ez al ditugu ongizatea sortzeko aukeratzeko?

Espainiako Estatuan, antzoki, auditorio eta kontzertu gela anitz eraiki ziren orain urte batzuk. Orain hiru laurdenak hutsik daude, ezer programatzeko sosaren zain.

Krisi honek argi erakutsi du adreiluak kulturak baino gehiago balio duela. Pentsa, berehalako etekinaren grinak orain erabili ere egin ez diren aireportuak eraikiarazi dizkigu. Zer premia zegoen? Ez zen hobia bi antzoki egin beharrean bakararra sortu baina programatzeko txanponak ukaitea? Inork ez du ezer aurreikusten. Inork ez du eraikitza zehazten aretotzarrean zer programatu zitekeen hausnartzen segundorik galdu. Helburua ez zen programatzea, antzokia egitea baizik. Baina zertarako balio du antzoki huts batek? Bi edo hiru urtean lanpostuak sortu eta jende hori langabeziara bidaltzeko? Zer gertatuko da langabezia sariak ordaintzeko txakur txikirik geratzen ez denean? Denak langabeziara bal-



din bagoaz, ez da langabeziarik egongo. Nora goaz bultzatzen ari diren austeritate politikekin? Martxa honetan, leize-zuloan sartu eta gauzak aldatu arte bertan egotea tokatuko zaigula ematen du, baina gauzak ez dira berez irauliko. Ez baduzu hazirik ereiten nekez jasoko duzu uztarik.

Eskolan artea eta sormena lantzen den bezala landuz jaso liteke taxuzko uztarik?

Musika matematika purua da, sentimenduak, sentsibilizazioa, teatroa, arte plastikoak... Ez da soilik zer gustatzen zaizun eta zer ez, zer eragiten dizun baizik. Musikak heziketa pertsonala garatzen du, eta berehalako onurarik ez badakar ere, arrasto oso sakonak uzten ditu gudan. Derrigorrezko ikasgaia izan beharko

**"Inork ez du eraikitza zihuan
aretotzarrean zer programatu
zitekeen hausnartzen segundorik
galdu. Helburua ez zen
programatzea,
antzokia egitea baizik"**

luke, baina ez musikak bakarrik, baita pinturak, idazkerak eta artearekin zerikusia duen orok ere. Eskolan lantzen eta indartzen dira gerora gizartearen oihartzuna izango duten sentiberatasunak. Gizarteak kontserbatorioaren ikuspegi karratua dauka, eta ezin liteke kartzela bat izan, norbere dohaina zukutu ahal izateko leihoa baizik. Alemanian, DNAn daramaten diziplina neureganatu nuen, eta uste dut latinook daukagun ekimenarekin nahasita koktel perfektua dela. Diziplina hori gabe alferrik da ahots ederra, ez duzu aurrera egingo, baina diziplinak ez du zertan kafkiarra eta egurrean oinarritutakoa izan.

Zer harreman duzu zure bozarekin?

Etengabekoa, betierekoa, eta inoiz izugarri astuna egiten zaidana. Beti zabilta zure gorputz osoa kontrolatzen, zure fisikoa zaintzen, zure egoera fisikoaren arabera baina zure instrumentuaren funtzionamendua. Atletikoa izan behar duzu, egunero ibili, soinketa ariketa jakin batzuk egin, gure motorra hauspoa eta diafragma direlako, eta horiek indartu ezean noiznahi pott egin dezakegulako. Ezin zara parrandan atera, kontzertu egunetan oso isilik igaro behar duzu eguna zure ahots-kordak ez nekatzeko, egunero jarri behar duzu makinaria martxan bokalizazio eta memori-zazio ariketak eginez... Zaintzeak zorroztasun itzela eskatzen du. Hori gutxi ez eta, denborarekin ahotsa aldatu egiten da, ispiluak baino zitalago salatzen dizu zahartzea, eta nahi ala ez, muga batzuk onartzea baino ez



zaizu geratzen. Tira, badaude 70 urtera arte oholtzan luzitzen diren kantariak, 40 urterekin zeukaten ahots gaitasunik ez izan arren, euren musikaltate eta transmititzeko senarekin gabezia fisikoak gainditu dituztenak. Nik beti izan dut argi iraun nahi nuela, eta horregatik egin dut ekoizpen luzeak. Garbi neukan bi egunez bidaiatu, kantatu eta berehala alde egiten banuen, ez nuela errenditzen. Bidaiek trapu eginda uzten naute, nagoen lekuan pausatu behar izaten dut, lasai egon, atmosfera arnastu, bestela nekez eman neza-



ke ehuneko ehuna. Nire kasuan, hiri berean luze egotea azieratu bat izan da, baina bakoitzak atzeman behar du zer komeni zaion eta zer ez. Batzuek esango dizute intxaurrak jatea txarra dela bozarentzat, esnekiek flema dakartela, baina bakoitzak garatzen duen sentiberatasunaren berri duen gisan jakin behar du zerk eragiten dion herrena.

Ahotsak eramaten zaitu pertsonaia zenbait interpretatu eta beste zenbait baztertzeraz?

Ahotsa da zure ibilbidearen gida, ezin duzu ez behartu, ez manipulatu. Behartzen baduzu jai



daukazu, goiz ala berandu krak egiten du. Zer gertatzen zaie atletei? Behartzen duten unetik arriskuan daude. Horregatik, beste deus baino lehen, pertsonaia nire gaitasun bokaletara egokitzen den aztertzen dut, ez dadila nire muge-tatik at ibili. Hori ziurtaturik, garbi izan behar duzu musika eta konpositorea sakratuak dire-la, obra bakoitzaren atzean intentzio bat dago-ela, eta behin musika landurik, testua eranstean hasten natzaio. Premiazkoa zait obra bat emanaldia baino urtebete lehenago lantzea, eta hilabete batzuetan pausatzen uztea. Harrigar-ria da pertsonaia berez-berez zure baitan egiten duen bidea. Eboluzio horren jabe iza-teak konfiantza itzela ematen dit. Hori hala, korrepetidore batekin entseatzen hasten naiz. Operaren giltzarriak dira, obraren elementu guztiak kontrolatzen dituzte, pertsonaia oro daukate buruan, eta testua, teknika eta estiloa etengabe bideratzen dizkizute. Pauta horiek ez dute esan nahi zure baitatik ezer sortu behar ez duzunik, pauta horien barruan zure artista izaeraren arabera mugitu behar zarela baizik. Hori da artistaren ondasuna. Ez da ahan-tzi behar kantatzen duzun momentutik ari zarela antzezten, antzezte ez baita eskuak mugitzea, pertsonaia hori zugan sentitzea baino. Pertso-naia barneratuta badaukazu, ez duzu apainga-ri handirik behar, berez aterako zaizu drama-tizazioa, berez teatralizazioa.

Ez al da gailentzen ari ahotsaren gainetik irudia jartzen duen joera?

Bai, lehentasunak eta baloreak aldatzen ari dira. Nik eszena zuzendari handiekin egin dut lan, oholtzaratze aitzindarien parte izan naiz, baina sinetsita nago opera batek ez duela iru-dia ahotsaren gainetik jarri behar. Kantariek ez badituzte pertsonaia erraietatik sentitzen alferrikakoak dira eszena arranditsuenak. Ahaztu zaigu instrumentu musikaletan datza-la operaren arrakasta, eta kantariak direla ezinbestekoak, ez eszena zuzendariak. Ez nago ados eszena ahotsaren kaltetan indar-tzearekin. Lepoa jarriko nuke askoz hobea dela opera bat kontzertu bertsioan ematea estilistikoki errotik landuz, sekulako oholtzar-atze distiratsuak muntatu eta musika baldar tratatzea baino. Horretarako antzerki aitzin-dari bat ikustera noa, ez opera bat. Musika da arte guztien osagarria, eta osagarri horren lanketan eta adierazpenean datza operaren borobiltasuna. Ni ez naiz oholtzan gelditi ego-

"Kontserbatorioa ezin liteke kartzela bat izan, norbere dohaina zukutu ahal izateko leihoa baizik"

ten den sopranoa, izugarri gustatzen zait eszena, baina ezin dugu operaren esentzia bide ertzean utzi.

Kritikak eta programatzaileek bide ertzean utzi zaitzakete?

Kritikak zorrozatasuna galdu du. Batzuetan kritikariek ez dakite musikaz, eta gehienak musika munduaren inguruan badabiltza ere, ez dago alderatzerik musikaz dakien batek egiten ahal dizun ekarpena, errealtate teknikoak usaindu ere egiten ez duen batenarekin. Horregatik, azkenaldian kritikariak askoz gehiago mintzatzen dira arlo teatralari buruz. Sentitu dutena aipatzen dizute, baina subjektibitate maila horretan murgildurik, kritikariaren aldatzea ere baloratu behar genuke. Nola azaldu bestela obra berari buruzko lau kritikek elkarrekin zerikusirik ez izatea? Hala, kritika bere neurrian baloratu behar da, betazalak erre gabe irakurri, interesgarria zaizuna gorde, eta kito. Ez da kritikaririk jainkotu behar, eta zorionez edo zoritarrez, lehen baino gutxiago baloratu eta kontuan hartzen direlakoan nago. Internetekin, gainera, edonork esan dezake edozer, edonoiz eta edonola, eta bakoitzak bere iritzia izatea berebizikoa bezain ondradua den arren, katedra beste zerbait da. Horregatik, uste dut kritikak baino botere zanpatzaileagoa daukatela programatzaile eta artista agentziek. Agentek eta laguntasun harremanak sartzen dira tartean, eta gure merkatuan ez dute beti irizpide objektiboak agintzen. Marketinak zeresan handia dauka, eta artistak antzokia betetzeko gaitasunean neurtzen diren garaiotan, are handiagoa. Nik sinetsi nahi dut gonbidatzen den artista zinez merezi duelako gonbidatzen dela, baina badakit, batzuetan, onena ez dagoela egon behar lukeen lekuan.

Krisiak are gaiztoago bihurtzen ditu oihaneko legeak.

Lehenbiziko aizkorakadak kulturarentzat izaten direnez, askoz proiektu gutxiagorekin



AZKEN HITZA

Elitista

“Opera ez da elite batena, sentiberatasun jakin bat duen jendearena baizik. Jende batek bere burua estatus jakin batean kokatzeko erabili izan duela? Jakina, baina hori iragana da, orain jendea gustuz etortzen da, jakin-minez. Zorionez, jakin-mina eta gustua ez dira klase sozialen arabera.”

gabiltza. Diseinatutako proiektu gehienek ez dute aurrera egiten, eta egindako batzuk ez dizkizute ordaintzen ekoizleei hitzemandako soseki agertu gabe segitzen dutelako. Ez dira gutxi ordaintzen ez duten udalak, eta asko dira dirua sekulako berantarekin sartzen dizutenak. Nik, zorionez, asko kantatzen dut kanpoan, Varsoviatik nator eta Boliviara noa, baina Espainiako panorama oso beltza da. ■



lagunekin euskaraz

interneten ere bai!

mobiletik euskaraz

gure artean euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

• Heyman Vázquez •

«Etorkinen erregularizazio juridikoak gehiegikeria asko desagerraraziko lituzke»

Arriaga herria, Txiapas. Mexiko iparraldera doan trenaren zain, Erdialdeko Amerikatik heldu ehunka lagun biltzen dira egunero bidegurutze ezagun honetan. Bidean bahituak, atxilotuak eta bortxatuak izaten dira maiz. Heyman Vázquez erretoreak kudeatzen duen Casa del Migrante-k bestelako harrera eskaintzen die AEBetara lan bila doazen gizon eta emazte hauei; legediak ez ditu benetan babesten.

HARTZEA LOPEZ ARANA

KLIMA TROPIKALA DA lurralde honetan nagusi, sargoria eta hezetasuna urte osoan. 2002an etorri zen Heyman Vázquez bertara, apaiz. Errepideetan migrazio poliziak dituen kontrolen ekiditeko, Guatemalatik, oinez, etorkinak elizara etengabe heltzen zitzaizkion, aterpe eta janari eske. Errealitate horren aurrean, Vázquezek etorkinen etxea altxatzea erabaki zuen, ate joka zeudenei baldintza duinetan ostatu emateko.

2004an ireki zenuten aterpetxea. Nola doa geroztik proiektua?

Ez da azitia izan behar migrazioa egunez egun gorantz doala ohartzeko. Guk behar bati erantzun nahi genion, besterik gabe. Lur eremu bat erosi, etxea eraiki eta arropa, osasun artatzeak, informazioa, ohea eta laguntza morala ematen dizkiegu hona datozenei, bidean aurkitzen dituzten arriskuak murrizteko. Nahi badute, hiru egun geldi daitezke hemen. Mexikon halako 52 etxe daude orotara, gehienak ipar eta hego mugetatik hurbil. Denak elizaren laguntzari esker bizi dira.

Nor dator zehazki zuen etxera?

Gehienak Hondurasetik datoz, baita Erdialdeko Amerikako beste herrietatik ere, Nikaragua, Salvador edo Guatemalatik. Egunean 50 pertsona inguru aterpetzen ditugu. Datoren batez besteko adina 20 eta 30 urte artekoa da, eta hamarretik bederatziz gizonak dira, nahiz eta estatistikek bestelakorik erran, etorkinen erdia emazteak direla alegia. Ez dakigu

zenbatek lortzen duten AEBetara heltzea, asko Mexikon geratzen dira bidean dauden arazoengatik edo AEBetan lan eskasa dagoelako. Badira ere adin txikiko etorkinak, bakarrik etortzen direnak. Haur oso trebeak dira, *narko*-entzako biktima potentzial bikainak. 8 urteko mutil koxkor bat gerturatu zitzaigun behin. Ahalegin guztiak egin genituen berriz sorterrira eramateko. *Narko*ek halako jendeak bilatzen dituzte, bahitu, hezi eta haiekin lanean ezar arazteko.

Diru gehiago dutenak herriko hoteletan geratzen dira, eta *coyote*-ek ere [diruaren truke etorkin ilegalak Mexiko eta AEBen arteko muga zeharkatzen laguntzen dituztenak]

“Badira adin txikiko etorkinak ere, bakarrik etortzen direnak. Haur oso trebeak dira, *narko*-entzako biktima potentzial bikainak”

badituzte beraien harrera etxeak. Arriagatik merkantzia trenea astean bi aldiz pasatzen da, Ixtepec aldera. Harrigarria da astero zenbat jende dagoen trenaren zain. Batzuetan egunak pasatzen dituzte trenbide ertzean, euripean. Gero, bidaia oso nekagarria egiten zaie,

batzuetan trenetik erortzen dira, bestetan extorsioak pairatzen dituzte.

Mexikon etorkinen alde bozkatu legeek zerbait hobetu al dute egoera?

Pixkanaka kontzientzia pizten ari da. Txiapas, duela gutxi arte, Mexikoko estatu arriskutsuena zen etorkinentzat. Ia denak lapurtuak ziren, emazteak sexualki bortxatuak, zauritu asko zegoen. Poliziak basaki jotzen zituen. Erietxeetan axolagabekeria handia zegoen, gaixoez ez zuten artarik jasotzen, eta egoera juridikoen hobetzeko edozein desmartxa

administratibo egitea ezinezkoa zen. Jendarte osoa ari zen etorkinekin tratatu txarretan. Legedi berriek ez dute errotik deus konpondu, baina orain arte ikusezina zen fenomenoak begi-bistako bihurtu dute azkenean. Noski, autoritateetako kideek berek ez dute askotan legeek diotena betetzen, baina teoriarik, gaur egun, etorkinak eskubideak ditu, hala nola segurtasun eta osasun eskubideak, baita justiziara jotzeko aukera ere.

Arriskuak lekuz aldatu dira? Mexiko iparraldetik berri latzak datoz sarritan.

AEBetako mugekin bat egiten duten estatuetan, polizia, gobernu eta lapurren arteko harremana estua da. Etorkinak diru sarrera erraza dira, 2.000 eta 4.000 dolar artean irabaz daitezke bahiketa bakoitzarekin. Coahuila estatuan, esate baterako, hango Casa del Migrantearen inguruetan kokatzen dira Zetas erakundeko sikarioak, ehizaren zain. Denek dakite hori baina inork ez du ezer egiten. Dendari, bankari eta abeltzain sare batek polizia eta lekuko botereak infiltratu ditu, enpresa-lapurreta moduko zerbait martxan daukate. Poliziak hogeita lau orduz etorkinen etxearen aitzinean egon behar luke zainketa lanetan, baina inoiz ez dira ageri.

"Arrisku mapa" bat ematen diozue etorkin bakoitzari. Zer dakar?

Arrisku natural eta humanoen gida bat da. Mexiko zeharkatuko dutelarik leku "beroak" non dauden jakin dezaten, eta etorkinen etxe guztien helbideak ere ukan ditzaten. 1996tik hona, adibidez, Arizonako mugan 1.200 hildako zenbatu dira, nahiz eta segurunez askoz gehiago egon. Tucson hirira heltzeko lau eguneko ibilbidea egin behar dute basamortuan, eta hipotermia, deshidratazioa eta piztien erasoak jasaten dituzte. Gutxieneko ardura batzuen hartzeko gomendioa egiten zaie mapa horretan. Arrisku natural horiek paratzeaz gain, estortsioak, droga kartelak, detekzio sistema elektronikoa eta muga patruilak non kokatuak diren agertzen da.

Migrazioa. Hainbeste jende pasatzen ikusita, zer datorkizu gogora?

Lekualdatze bortxatua da. Ez da borondatez egiten, pobrezia duen eragiten. Herri askotan ez dago duin bizitzeko aukerarik ustelkeriak eta egoera sozialak direla medio. Erdialdeko Amerikako familien diru-iturri garrantzitsue-



Egunean 50 pertsona inguru aterpetzen dituzte etorkinen etxean. "Lur eremu bat erosi, etxea eraiki eta arropa, osasun artatzeak, informazioa, ohea eta laguntza morala ematen dizkiegu".

na AEBetatik lan egiten duten etorkinek bidaltzen dieten sorta da. Gehienek paperik gabe lan egiten dutenez, ohikoak dira AEBetan etorkinen kontrako sarekadak. Kartzeletan dauden hirugarren giza talde handiena dira. Visarik ez ukatea ala zaharkitua edukitzea, osasun inspektoriak gabe lan egitea delitu direnez, segurtasun nazionalaren izenean presondegiratzen dituzte, eta gehienak deportatzen. Gertatzen da mexikar batzuk Erdialdeko Amerikako beste leku batzuetara deportatzea: dokumenturik ez dutenez, autoritateek erabakitzen dute zein den beraien "sorteria".

Zer falta da honen guztiaren normalizatzeko?

Erregularizazio juridikoa. Mexikon sartzeko, visa eskatzen zaie Erdialdeko Amerikako biztanleei, eta gehienek ez dute paper horien egiteko aukerarik. Ezkuturik, agiririk gabe zeharkatzen dute herria, horrek ditu hain ahul egiten. Errepresioak are gehiago indartzen du defentsa eskasia hori. Visa sistematikoki emanez gero, gehiegikeria asko desagertuko lirateke. ■



TTAKUN (H)ERRENKA

Amayak

Z

enbat ustezko amaiera ez ote dizkigute iragarri eta berau iritsi ostean esan diegu geure buruei: “Hau al zen guztia?”. Jose Luisek aipatu ditu zenbait. Gogoan dut nik ere Paco Rabanneren hura, Nostradamusen profezien ildo-tik munduaren amaieraren berri eman zueneko XX. mendearen hondarrean. Haren arabera, 1999ko abuztuan akaberara emango zen gure mundu maskala, milurteko azkeneko eguzki-eklipsearen ondotik Mir espazio-ontzia Parisen eroriko zelako. Erri-toari jarraiki ezarri nintzen *Muy Interesantek* —edo *Geo* ote zen? edo *Quo?*— banatutako betaurreko bereziak ipinita eguzkiari begira ene hamabost urteekin, aski eszeptiko ordurako, pentsatzen domaia litzatekeela adin nagusikoa izatera ez iristea, adinarekin omen zetozen gisa guztietako plazer zein esperientziak galtzea (sic). Mundua deritzanak aurre-ra egin zuen, ordea, ni heldutasunaren mundu miresgarriara igaro nintzen urte gutxi batzuen ostean, eta esaldien ondoren *sic* ipintzen ikasi nuen.

Zinemaren beraren akaberaz ere ez da berba gutxi egin, edo zinemak berak akabatu omen zuenaren —nobelagintza, esaterako— inguruan. Ezagun da, telebistaren zabalkundeak zinema-aretoak hustuko omen zituen. Dudarik gabe, ezin esan urteen poderioz gauzak aldatu ez direnik. Donostiako Principe zaharraren oroitzapen lausoa dut, areto handi eta dotore harena, multizine bihurtu aurrekoa. Edo *La señora Doubtfire* ikusi nuen Savoya Gros auzoan edo Amaya zinema Getaria kalean, biak ere desagertuak 90. hamarkadan. Baina ez dakit zertan ari naizen, zeren ttakunak antinostalgikoa izan behar zuen eta horrela bide aski okerretik bainabil. Ez baitira izan zinema-aretoenak aldaketa bakarrak. Hor nonbait entzun nuenez,

DANI BLANCO



Beñat Sarasola



Apalaza



Padrón

behialako Hollywoodeko zinema klasikoak betetzen zuen funtzioa telebistarako fikziozko sail arrakastatsuek betetzen dute gaur egun. Auskalo, baina egia da David Fincherrek zioena berrikitan, alegia, egun ez dagoela iraganeko zinema-estreinaldietarako grina larri hori. Prefosta, ez

dira alferrik igaro Internet eta deskargak.

Nobela lurperatu izan dutenak zientoka izan dira halaber. Tom Wolfek abiatutako eztabaida da ezagunetakoa, zeinetan kazetaritza berria izeneko “mugimenduak” nobela hilko zuela aldarrikatu baitzuen. Jakina, bere burua kazetaritza berri horretan kokatu zuen; ez zitzaion gaizki atera jokaldia, arrakasta eta dirua, biak etorri baitzitzaizkion tonaka. Hori bai, denborak ematen digun distantziaz bere iragarpenak txiste itxura hartzen du gehiago, gaur egun aski garbi baitago nobela hilik bada ez dela kazetaritza berriagatik izan, alafede.

Iragarpen apokaliptiko horien atzean, sarritan, nartzisismoa ezkututzen da nahiko era baldarrean. Norberak bizi duen garaia, eta are, norberaren eragin historikoa (Wolfen kasua testigu) erabakigarria delako ustea. *Vanitas vanitatis et omnia vanitas*. Inork ez du nahi, agidanez, ustez ezer jazo ez zen Erdi Aro aspergarrian bizi, eta hala, tankera guztietako heriotzak joaten gara jasotzen. Gero ezkututuko dugu beharbada halako pose


nostalgiko batekin, eta garai zaharrak zeinen ederrak izan ziren aldarrikatuko dugu, baina benetan atsegin duguna eraistearen testigu —eta ahal dela protagonista— izatea da. Gauza gutxi dago suntsipena baino morbosoa. Non zeunden Berlingo harresia eraitsi zutenean? Non Francoren heriotzaren berri ematean? Zer ari zinen egiten Irailaren 11an? Zer ETB1 itxi zutenean? ■



« Iragarpen apokaliptiko horien atzean, sarritan, nartzisismoa ezkututzen da nahiko era baldarrean. Norberak bizi duen garaia, eta are, norberaren eragin historikoa erabakigarria delako ustea »

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Ainhoa Larrañaga

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

Inora ez garamatzen trena



ezkuntzan, osasungintzan eta oinarritzakoak diren beste hamaika zerbitzutan murrizketak egin ditu administrazio publikoak. Administrazioaren menpe ez dauden,

baina diru publikoa jasotzen duten beste hainbat herri-erakundetan ere iturria moztu du Jaurilaritzak (UEU, *Nabarra* aldizkaria...) herrigintzako hainbat proiektu kolokan jarritz. Krisi garaian ez dago zerbitzu publikoak ordaintzeko dirurik, ez eta herrigintzatik datozen proiektuei laguntzeko ere. Bestalde, eta krisiaren eraginez hau ere, makina bat bota dituzte ordaintzen jarraitu beharko duten euren etxetatik, hipotekari erantzun ezin diotelako. Baina gure inguruan, badira beste era bateko kanporatzeak ere, Abiadura Handiko Trena egiten tematu diren politikariek eragindakoak. Kanporatze hauetan ere, arduradunak, benetako agintariak, dirua mailagatzten duten banketxe eta botere ekonomikoa dutenak dira.

Bergaratik Angiozarrera datorren bailaran hasi dira zentzugabeko azpiegitura burutzeko lanak eta honek bertako hainbat baserri hustea ekarri du. Hauek ez zuten krediturik bankuekin, oso bestela, betidanik familiakoa zuten etxea husteratzen dituzte, azpie-



JUDITH FERNANDEZ

gitura egiteko obren eraginez. Ikuskizun dago itzultzeko aukerarik izango duten eta lanak amaitutakoan etxeak bizitzeko gutxieneko baldintzak beteko dituen. Nola uler dezakegu, hainbat zerbitzu eta proiektutan murrizketak gertatzea, inora ez garamatzen trena egiten ari diren bitartean?

Azpiegituraren alde dagoenak ere baditu hamaika arrazoi, trena auzitan jartzeko.

Herritar guztiongan eragin du eta eragingo du krisiak: familian lana galtzeak dakar oinarritzako beharrak asetzeko ezintasuna (hipoteka, haurren eskola gastuak, jana, etxea...), egoera oso larria da.

Aurrean daukagunaz jabetzen garela esango nuke; aldamenean, lagunartean, senideren bat... Edo gu geu, egoera hauetakoren batean egon gintezke, eta hala ere, ez dago erreakziorik. Errealitateari ihes egin nahian edo, bestaldera begiratzen dugu. Zergak igota, administrazioaren kutzak beteko dira eta kanpoko enpresei lana emango diegu, gure diruarekin. Bitartean, herritarrok, garraio publikoa gehiago ordaindu beharko dugu, osasun-

gintzan, hezkuntzan, eguneroko erabiltzen ditugun azpiegituratan, eguneroko beharretan atzera egingo dugu. ■



« Azpiegituraren alde dagoenak ere baditu hamaika arrazoi, trena auzitan jartzeko. Herritar guztiongan eragin du eta eragingo du krisiak »

TXANDAN

Juanra Makuño



Agintarien independentzia hartu dut hizpide, alegia. Ez dakit zu, baina ni—azken bolada honetan bereziki— azken urte hauetan munduko agintarien adierazpenak entzun edo irakurtzen ditudanean, hotz eta harri gelditzen naiz. Harrituta, ez bere horretan zerbait berezia itxaron dezakedalako beraien ahoetatik edota idatzietatik, harrituta duintasun eskasa erakusten dutelako baizik. Duintasuna, egunetik egunera, galtzen joan direlako, azkenean beraien karikatura bihurtzeraino heltzen direlarik. Eta hau guztia gertatzen da, hiritarrak ikusle hutsak bihurtu garen honetan.

Agintariak

Jada ohituta gaude betekizun horretara. Eta nago, agintariak ere, betekizun horretara ohitu egin direla. Ez dutela asmatzen beren agintean, ez dutela erakusten beren buruaren jabe direla diru kontuak aztergai dutenean. Bestela, ulertezina da munduko ekonomien inguruan ematen ari diren mailarekin. Adibide batzuk aipatzearren: Rodriguez Zapaterok egin zuena Obama jaunaren deia inguruan. Edo berriki Espainiako ekonomia ministroaren adierazpenak: “Zergak igotzea onartu izan ez bagenu, beste batzuek behartuko gintuzten horretara”. ■



Oier Araolaza

DANTZARIA

Oilo bustia ala hartza

Dantzan puntu com, dantzaannnn, ennez bukatuta”. Zenbat aldiz errepikatu behar izan dugun zuzenketa hori azken hamar urteotan. Izena jartzerakoan pentsatu genuen indar gehiago zuela ‘n’z bukatutako “dantzan.com” horrek, eta gainera, beste erremediorik ere ez genuen, ‘n’ gabeko “dantza.com” zainzuriak, piperrak eta alkatxofak saltzen dituen Castejongo kontserberak hartua baitzuen ordurako.

Hamar urte dira ARGIAtik gonbidapena jaso nuela dantzan.com ekimenaren berri emanez artikulua bat idazteko. *The Chicken dance*, alegia, *Oilaskoaren dantza* izan zen artikulua haren izenburua. *Maria Jesús y su acordeón* eta bere *pajaritoak* Benidormen konfinatzea lortu genuenean, Ameriketako euskaldunen ezteietan jarri ziren modan, eta gainera, euskal jatorriko dantza zelako ustea zabaldu zen. Lisa Corcosteguiak esplikatu zuen *Oilaskoaren dantza* Thomas Werner suitzarrak sortu zuela 70eko hamarkadan, eta harrezkero mundu osora zabaldua zela *The Duck Dance* edo *La Danse des Canards* moduko izenekin. *Dantzaldizkaria* webgunean eman zituen azalpenok ingelesez. Hori ikusita pentsatu genuen ingelesez ez dakitenentzat egin behar genuela antzeko zer-bait. Horrela sortu zen dantzan.com, eta horrela hasi nintzen ARGIArako artikulua hauek idazten.



DANI BLANCO



Hamargarren urteurrena

ospatzeko unean hileta

kanpaiak jo ditugu.

Diru-laguntzen jaitsierak

eta beste diru-sarrerak

murritzuta dantzan.com

itxi beharra izan dugu



“Euskal dantzarien komunitatearen informazio trukea bideratzeko sortu da dantzan.com, euskal dantzari eta dantzazaleen gunea” idatzi nuen oilaskoarenak esplikatu eta gero. Dantzari batzuen gogoia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntza eta CodeSyntax enpresaren gidaritzaren teknologikoarekin abiatu ginen. Bidean zientoka dantzari eta dantzazale, elkarte, talde eta norbanako batu zaizkigu, Eusko Jaurlaritzaren laguntza ere jaso dugu, eta dantza arnasten duen komunitate erreala trinkotu da gune birtualaren bueltan.

Hamargarren urteurrena ospatzeko unean hileta kanpaiak jo ditugu. Diru-laguntzen jaitsierak eta beste diru-sarrerak murritzuta dantzan.com itxi beharra izan dugu. Oilaskoaren dantzaz gain, hartza hibernazioaz aritu gara dantzan.com-en. Jakin dugu neguan hartza leizean ezkutatu eta lozorroan izaten dela, kieto, hilda bezala. Kandelaria ostean, inauterien usainera iratzarri eta indarberrituta itzultzen da. Horixe amesten dugu guk ere. Hartza neguko loaldia izatea nahi genuke, indarrak batu eta

udaberriko esnatzeko. Baina, nola jakin lotara joaterakoan negu luzearen ostean iratzarriko ote garen? Hartza dantzarekin amets egiten dugu; ea ez garen oilo bustiarenarekin geratzen. ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



genuen eskursio bakanen garraio, maisuaren agindu oihulariak lege, gure kantuak irrati, amaren zakua bideko. Beste garaiak ziren. Oraingoetan, gu gara garrasi batean autobuska bide egiten dugunak, Marlaskaren bat lege, Aresen bat irrati, zientoka amen larriak zaku. Guretzat propio erabaki aginduek ez gaituzte geldiarazten, isilik behar bagaituzte ere. Eta beste behin frogatu diegu ez gaituztela geldiaraziko, gaizkile deitzen dieten euskal preso politiko bakoitzeko ehun eta berrogeita hamar bat bidaia-ri gaudela, Euskal Herriko txangozaleak autobusik

Autobusa

gabe uzteko gauza garelako. Eskursioaren antolatzaileek erabakitako ibilbidea ez zen aski izan bertaratutako guztiak pausoan biltzeko, Etxerat-ekoak pasatzen ikusteko espaloietan tinko-tinko geundenon arnasestua genuela kantu. Halere, maisu agintariekin berean dihardute, zintzotasuna galdetzen duten erregeak bailiran, tabakoaren hilgarria predikatzen duen mediku erretzailearen antzera. Preso bakoitzaren inguruan babes zabal zehatza gauzatzeko garaia dugu hau, auzo, herri, hiri, bailara autobus. Nazio osoa autobuska antolatua. Txoferren zain geratzen gara. ■



ZIRTAK

Julen Galarria

IDAZLEA

Ezintasunaren katalogoa

Urte guztiek, hasi berri den honek ere bai, errealtatearen aurkako bi tregoa eskaintzen dizkigute esku-zabal bezain nekaezin: urte hasieran bata eta ikasturte hasieran bestea. Munduan ez da izango espezierik, gureaz aparte, urtean bi aldiz pentsatzen duena etorkizunean bizitza hobea izango duela, eta urtean bi aldiz muturrez jotzen dena egia krudelarekin, asmo onei ekin eta aste pare batera gehienez ere.

Kioskoetako bildumak dira tregoa garbitzaile horien ezaugarriarik argienetakoak: hizkuntzak ikastekoak, Cantinflasen pelikulak, itsasontzien maketak, miniaturazko kotxeak, etxean ortua egiteko haziak, Raphaelen disko bilduma, belenetako figurak, tximeletak, soldaduak, gantxillo ikastaroak, *La casa de la pradera* seriea osorik, txakurrei buruzko entziklopediak, nobela erromantikoak, Disneyren kuberterriak eta imajinatze zailak diren beste hainbat bizarrokeria. Garai batean, pentsatzen nuen urte gutxi batzuetako moda izango zela, baina ez: jendeak urtero egiten ditu —edo hasten ditu— eta argitaletxeek urtero ateratzen dituzte. Eta ez da jardun pribatuegia ere: Bilboko Plaza Barrian, igande goizetan, jendetza elkartzeko da kromoak trukatzeko edo txanponak erosteko, eta horrela, munduaren bilduma eginez, euren barruak antolatzeke, eta ez diren horiek izatera heldu daitezkeela sinesteko.

Nik ez dut kioskoetako bildumarik egiten, baina inoiz irakurriko ote ditudan ere ez dakidan liburuak erosten ditut, ikusi gabeko pelikulaz gainezka daukat etxea, prentsan agertzen diren albiste eta elkarrizketa interesgarriak gorde-tzen ditut badaezpadan, nire inguruko gertakari gehienei buruzko estatistikak egiten ditut, eta etorkizunean gogoratu nahiko nituzkeen gauza guztiak apuntatzen ditut. Bildumak egitea obsesio gaixoa izatera heldu daiteke, ondo



INIGO AZKONA

dakit nik hori. Gaixoa, bildumak ez direlako sekula amaitzen. Eta errukiz begiratzen diet igandero zigiluen postuetan pilatzen direnei: benetan uste dute dauden zigilu guztiak lortuko dituztela? Konturatzen ote dira, erosten duten zigilu bakoitzeko, aste horretan bertan beste mila zigilu berri atera dituztela? Nolako etsipena sentituko lukete, egunen batean munduko zigilu museorik onenera joango balira? Izango al dituzte museo horretako leihoek burdinazko hesiak, bildumazale etsien asmo suizidak uxatzeko?

Bildumak egitea obsesio gaixoa izatera heldu daiteke, ondo dakit nik hori.
Gaixoa, bildumak ez direlako sekula amaitzen. Eta errukiz begiratzen diet igandero zigiluen postuetan pilatzen direnei: benetan uste dute dauden zigilu guztiak lortuko dituztela?

Izan ere, bietako bat: edo zure bildumak ez du errealtate osoa jasotzen, edo, bilduma osatu duzunerako, errealtatea beste bat da. Eta bildumagileak inork baino hobeto daki, jakin beharko luke, mundua amaiezina dela, eta bere helburua ezin dela izan bilduma amaitzea, baizik eta bilduma egiten jarraitzea. Halaxe egiten zuen Bizar Urdin krudelak ere, ezkondu eta gutxira emazteak bata bestearen ostean hiltzen zituenean,

etengabe ezkongabe eta etengabe bildumagile izaten jarraitzeko, Santiago Alba Ricok *Leer con niños* saiakeran kontatzen duen moduan. Pornozalearen patua, aizue: bere bildumarekin izugarri gozatzen duen bitartean, izugarri sufritzen du, bilduma sekula amaituko ez dela jakinda. Izan ditzake sareko neskari pneumatikoenak bilduman, baina bere portalean bizi den *next door girl*a faltako zaio beti.

Bildumagileak nahiko luke mundua bere eskuez ordenatu, kaosa bitrinetan sartu, unibertsoaren anabasa etiketatu eta formoletan gorde. Nahiko luke, bai; baina bilduma hori, ezer izatekotan, bere buruaren erretraturik zintzo, fidel eta patetikoena baino ez da. Hortxe dago,

modu txukunean katalogatuta, giza ezintasunaren kronika bikaina. ■



irudia:

Antton Olariaga






argia


www.argia.com/multimedia

bertsio digitaletik harago
argi berri bat sarean




Beranduegi

Interneteko telebista saioa asteartero: umorezko albistegia, lehiaketa, elkarrizketak, erreportajeak, kultura...



Bideoak

Elkarrizketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.



Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.



Ekitaldiak

Hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean eta euskaraz, baita nazioartean emandakoak ere.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.



Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpituluekin.



Bereziak

Teknologia berriak baliatuz, informazioa emateko muntaia bereziak. Izan kronologia interaktiboak, mapa ilustratuak eta abar.

BERTSO BERRIAK

Agin Rezola

Izeba Bittoriri jarriak



XDZ

I

Alzheimerraren segida
heldu da gure sendira.
Behin bazan ere, joan nahi nuen
erresidentzira
eskaintzera despedida
ta zer pasa dan begira:
beti geroko utzi ta orain
beranduegi da.

III

Zimelduz jun zan loria
ta zurbilduz koloria.
Aldatu gabe zegon bakarra:
nere baloria.
Manten dezaket ordia
nere barruan gordia
han ikusiko nuena
baino irudi hobia.

V

Ia egunero mezan
faltik gabe izaten zan
gero etxian egoten ginan
mugitu perezan.
Zergatik nengon berez han
ezin nuen beti esan:
“kaixo izeba” esaten nion
berak susma zezan.

II

Pastilazoak gutxitan
egingo zuen hutsikan,
azkenerako apenas ez zun
egiten hitzikan.
Ezin sendatu gaitzikan,
beti txarrera baizikan.
Beldurragatik ez nun joan nahi
izaten bixitan.

IV

Behar nuenean jana
edo gainontzeko dana
txikitan beti joaten nintzan
izebarengana,
bera baitzan egin zana
Aginen bigarren ama,
bizi osoan inoiz eskertu
ez diodan lana.

VI

Badakit mila pilula
irentsi behar zitula
ta horrek askoz ezezagun(ag)o
egingo nindula.
Galdu zun arren brujula
ez det ahaztuko sekula
ahuldu Alzheimerrak eginagatik
tristurak hil zula.



DOINUA: Dozena bat bertso berri



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Sergi Pàmies

«Idatzi baino egin ezin daitezkeen gauzak idazteko borondatea dut»

Sergi Pàmies aurkituko dugu, zalantza gutxi, gaurko idazle katalanen top five zerrendan. Ipuingilea besteren gainetik, *Limoi bat jaten baduzu imintziorik egin gabe bildumak* eman zion sona. Euskaraz atera berri du orain, Gerardo Markuletaren itzulpenean, Txalaparta argitaletxeak.

ARITZ GALARRAGA

Argazkiak: Núria Juan i Serrahima

Euskarari ekarri diote *Limoi bat*. Aberastuko zara orain.

Aberastearena, nola esan, beste bizitza baterako utziko dugu. Gaztelaniaren kasua kenduta, helburua da goxo hartuko zaituen etxe bat aurkitzea, konplizitate moduko bat sortzea editorearekin, ea zer pasatzen den, mundura pixka bat irekitzea. Eta hartu nautenak ere gustura egotea. Adibidez, frantsesera dena itzuli didate, desastre joan izan balitz bigarrena ere ez zuten egingo. Eta gero itzulpena da Errege Magoei idatzitako eskutitza bezalakoa: zerk egingo lizuke ilusioa? Bada euskarara itzultzeak. Faltan nuen.

Eta *Limoi bat* behar zuen, noski.

Oihartzun handiena berak izan du, nazioartean-eta. Fenomeno moduko bat izan da nire ibilbidean. Ez du inolako proportziorik gordetzen besteekin, berehala ikusi zen: aurreko lanen ondoren, banekien liburu batekin zer gertatzen zen gutxi gorabehera, eta honek ez zuen zerikusirik izan. Momentua izango zen, titulua, pertzepzioa. Auskalo. Azken liburua-ekin atzera bueltatu naiz normaltasunera.

Literarioki zure libururik onena da, itzulitakoa?

Ez dakit, uste dut jarraikortasun bat dagoela azken hiru lanetan. Ez dizut esango trilogia direnik, baina urte batzuei lotuta doaz liburuok, arduraren urteak, depurazio formala



dute ezaugarri, emozionala. Jada ez dut idazten gustatzen zaidalako, behar dudalako baizik. Idaztea gustatzen zaidan guztia ateratzen dut egunkarietako kolaborazioetan; beraz, hemen jartzen naizenean ia poetaren motibazioa dudala esango nuke.

Poesiarekiko gerturatze hori, besterik ez bada maila kontzeptualean, ikus daiteke generoaren trataeran: ekonomia, deskripzioa baino sugestioa; ez dakit beharrak eramanda iritsi zaren edo ibilbide baten depurazioa ote den.

Bietatik izango du. Baina beharraz gain, bestelakoak prentsan atera ondoren, geratzen zaidan bakarra eremu intimoa da. Eta alde horretatik bai gerturatuko litzatekeela poesiara. Eta gero bada borondate bat, aurrez pentsatua, idatzi baino egin ezin daitezkeen gauzak idaztekoa. Istorio batekin filma egin badaiteke, edo abesti bat, bazter

"Literatura sufritzen ari bada, espezializa gaitezen beste formatuek eman ezin dezaketena emanez"

uzten dut. Literatura sufritzen ari bada, espezializa gaitezen beste formatuek eman ezin dezaketena emanez. Eta horrek indirektoki eramaten gaitu berriz intimitatera eta emoziora, zail direnak esplikatzen irudi bitartez, adibidez.

Hori da, beraz, literaturak ibili beharreko bidea?

Une hauetan bai. Nobelagilea banintz arduratuta nengoke: oraingo nobelarik onenak tele-sailetan daude. Nobela koral bat egitea da egin nahi izatea etxe bat arkitekto bikainak egon diren auzo batean. Beste erritmo batzuetara ohituak gaude eta ipuina egokitzen da jendearen behar emozionaletara: formatu labur eta popularra da, erraza eramaten, kontsumitzen, berrirakurtzen, irakurleari denbora gehiegi ez dio exijitzen, bai aldiz emozioaren zentzuan. Korrikaldi labur bat maratoiaren aldean. Intentsitate hori.

Aldiz garraio publikoan denak dira nobelak, zenbat eta lodiagoak hobe.

Egia da, baina oraindik anakroniko puntu bat ez duen arren, iruditzen zait laster izan dezakeela. Trantsizio momentu batean gaude, zer izango den ez dakigun garai baten atarian. Dena den, aukeraketa pertsonala da nirea. Batetik beharra eta bestetik aukeraketa bat, posizio bat, ez proselitista, partikularra baizik.

Gero gertatzen da hizkuntza ez hegemonikoe-tako literaturetan, genero apalagoek presentzia handiagoa izan ohi dutela. Ipuina, katalanez, ez soilik ez dago estigmatizatua, ale onak eman ditu gainera.

Bai, baina hemen ez dut ikusten katalanaren partikularitasun baten ondorio gisa, ezpada industria batena eta tradizio batena. Hemen bazen tradizioa eta momentu egokian berreskuratzeko borondatea izan zen. Kulturalki balioetsia izan da ipuin laburra. Pere Calders, Mercè Rodoreda... izan ditugu. Eta gero dago, eta hau kosta egiten da sarri esaten, arrakasta, idazle konkretu batena: Quim Monzó. Eta norbaitek arrakasta badu berehala sentsibilizatzen dira editoreak eta idazleak, eta irakurleak, eta sinesten dute posible dela.

Monzó aipatu duzu eta, haren karga nabaritu izan duzu inoiz?

Horrek niretzat arazo bat izan behar duenaren pertzepzioa nabaritu dut lehen egunetik. Baina arazoa besteentzat izan da, nik zortea izan dut. Besteren gainetik laguna da, eta neurekoiago, aukera paregabea izan dut ikas-



Quim Monzóri buruz: "Besteren gainetik laguna da, eta neurekoiago, aukera paregabea izan dut ikasteko, komunikazio zuzena izan dut maisu batekin, maisutasun irizpideak ezarri gabe, kide gisa".

teko, komunikazio zuzena izan dut maisu batekin, maisutasun irizpideak ezarri gabe, kide gisa. Solaskide, laguntza, konfrontazio elementu modura batzuetan. Beraz, ez itzal, ez luze. Gainera gugatik borrokatu behar izan du, eta atzetik etorri garenok baliatu ditugu bere arrakastak irekitako bideak.

Literatura egiteko dutun moduari helduz, ipuinetan ematen dutun giroa oso da eszeptikoa, etorkizunean fede berezirik gabea, galdua. Akaso giroa horrelakoxea delako.

Ez dut uste horrelakoa denik, baina nik horrela ikusten dut.

Are, horren exajerazioa badago, gustu ia patologikoa psikologia eszeptikoarekiko. Ez akaso depresioaren estetika, baina ia, hobeki funtzionatzen dut perspektiba negatibotik, positibotik baino. Beraz saiatzen naiz kokatzen estridentzia triunfalistarik ez den eremu literarioetan, ez optimista, ez arranditsu. Musikan onartua dago musikari batek musika tristea egitea, eta ez da derrigor pentsatzen tipoa depresiboa denik. Eta azken liburuek doinu hori dute, nolabaiteko malenkonia existentziala, gauzak iraungo ez dutenaren aire bat, dezepzio puska bat; ironia amiñi bat eta bitalitate handiarekin konbinatuta, noski.

Ez da beraz garai baten haztapena, ideia handiak atzean utzi dituen garai batena.

Azken liburuan presenteago dago ideia handien joanak sortutako dezepzioa, hiruzpalau ipuin autobiografikoago daude. Baina hori katalogoko beste dezepzio bat gehiago litzateke. Gehien interesatu zaidan dezepzioa maitasunarena izan da. Bigarren bat familiarena. Eta gero hitz handien dezepzioa, baina ez derrigor hitz ideologikoa. Adibidez, nire etsairik handienetakoa da maitasunaren sakralizazioa, maitasuna produktu akastuna denean —etxe tresna elektrikoa balitz, dirua itzuli beharko ligukete—. Eta gauzak sakralizatzeke sistema bera ere bai. Baina ez naiz abiatzen lilura desegin batetik: geure belau-naldia ez da ilusionatuta ere egon. Bide batez abantaila izan dena.

Hitzen gezurra desmuntatzen duen literatura bat, gezurra elikatzen duen beste baten aldean, hortaz?

Baina niri molestatzen dit gauzak seinalatzen dituen tipoaren figura horrek. Ezagutu dut jende zoriontsua, asuntua ondo atera uste zaiona. Ez didate inbidia berezirik sortzen, egia da, baina ez zaizkit iruzurtiak iruditzen. Sarri esaten dute gizaki modernoaren gaineko erreflexioa egiten dudala, kritiketara ira-

“Saiatzen naiz kokatzen estridentzia triunfalistarik ez den eremu literarioetan, ez optimista, ez arranditsu”

kurtzen duzu. Akaso urrutiegi doaz, edo, bestela, zuk kontrolatzen ez duzun testuen zati horrekin du zerikusia. Edozein kasutan ez da bilatua. El Corte Inglésa sekula ikusi ez duen bat txundituta geratuko da lehen solairuan; esan beste zazpi gehiago daudela. Nik ez ditut kontrolatzen zazpi solairu horiek, lehenarekin nahikoa. Baina idazten dudanak zazpi solairu gehiago eragiten baditu, edo bi lurrazpiko, hobeki, ezin da kontrolatu.

Gaiak bai kontrolatzen dituzu, ez baitira literaturako gai handiak.

Hemen bai dagoela diskurtso bat, apustu bat, nahitaez literarioa, idazle handiek nahi ez duten materiala erabiltzekoa. Huskeriaren aldeko apustua, beraz. Idazle handiek diote esku bete gai baino ez dagoela literaturaren historian. Niri aldiz gustatzen zait espezifikoki literario ez diren gauzekin lan egitea. Zerikusia du neure bizimoduarekin, bizimodu bizia banu bestela idatziko nuke, baina nahita daukat normala.

Ezkor puntua dute ipuinek; baikorragea da idazlea.

Baikorragea naiz, bai, ezkor beharko nukeen gaietan ere. Giroa halakoa denez, kontraesan-espirituak hartzen du pisu gehiago. Adibidez, beti ikusi izan dut literatura katalana nahiko ondo. Sarietan zentratua dago, ados. Eta Espainia ez? Influentzia izan eta inposatu nahi den jauntxo talde bat dago. Eta Frantzia? Zerk pentsarazten dit ez gaudela hain gaizki? Liburu denda batera sartzeak eta orain 30 urteko egoerarekin konparatzeak. Esfortzua jada ez da militantziakoa, industrial da; akatsak harreman handiagoa du zabarkeriarekin, pertzepzio ideologikoarekin baino. Kexaren diskurtsoak, beraz, zehatzagoa beharko luke kasuon. ■



ogiaren egia



Galparsoro
OKINDEGIA

Zatoz eta ezagutu garai batean egiten ziren ogiak, lehengo osagai eta teknikekin

Antzinako ogiaren kabia bihurtu baitugu denda zahar berria

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

Musika

«Amorrua adierazteko elektronika oso ona da»

Mikel Kazalis Euskal Herrian musika gogorra egiten denetik hor egon da beti. 1980ko hamarkadan Estigia eta Anestesia sortu zituen; Negu Gorriak eratu zenetik itsasontzian izan zen; Izaskun Forkadarekin 2 Kate sortu zuen; eta Kuraia taldeko kide ere bada. Orain, Matxurarekin, musika industrial bortitza errebindikatzen du, Anestesia, Gutural, Pilt eta El Corazón del Sapo taldeetako hainbat kideren laguntzarekin. Taldearen izen bereko diskoa Bonberenea Ekintzak-ek uda aurretik kaleratu bazuen ere, oraindik ez dute agertokirik zapaldu.

IKER BARANDIARAN

Proiektu propioa zena talde bihurtu da.

2009an hasi nintzen bozetoak egiten, eta gerora Aitor Abiori deitu nion, alde elektronikoa lantzen laguntzeko. Fer Apoak zerbait entzun zuen estudioan eta gustatu zitzaionez animatu egin zen ahotsekin probatzera. Eta Txarly Diazek elkarrekin zerbait egiteko aipatu zidanean, proiektua erakutsi nion. Helburuak dira musika indartsua egitea gure muga batzuk gaindituz, jolastea, esperimentatzea, eta amorrua kanporatzea.

Zerk batzen zaituzte eta zer osagai jartzen du bakoitzak?

Laurok gatoz musika indartsua eta erritmikoa egitetik, alde elektronikoa ere tarteka denok ezagutu dugu, eta ezagutzen dugu pixka bat mundu hau. Abiok elektronika eroa jartzen du, Fer-ek ahotsa eta jarrera, Txarlyk gitarra zorrotza eta sena, eta nik oinarriak eta amorrua.

2 Katerekin arlo elektronikoa eta industrial ere jorratu zenituen. Eroso zaude diziplina horretan?

Badu zerbait erakartzen nauena, oinarri erritmiko potenteak, makinaren sentsazioa, gitarra zorrotzekin nahastuta, distortsioa... Indarra adierazten du.

Zer esango zenieke elektronika hotza dela diotenei?

Nire ustez hoztasuna ez da estilo edo tresnaren araberakoa, edozein estilo eta musika tresnarekin adierazi daiteke sentimendu bat. Eta amorrua adierazteko oso ona da elektronika.

Fidatzen zarete bakezaleez?

Bakea beti ahotan, baina errealitatean... Gure bakea lortzeko ezintasun hori dela-eta, ironi-

koki proposatzen dugu “suizidio herrikoa”; bakea lortzeko, indarkeria adierazpen ezin eraginkorragoa.

Nostalgikoa zara: inork errebindikatzen ez duenean, zu musika industrial egiten...

Ez da nostalgia, gustu kontua baizik. Urte batzuk baditut eta nire eragin gehienak ere orain dela urte batzuetakoak dira, nahiz eta egunero berriak jaso. Ondo datorkit nahi dudana adierazteko. Ez zait axola besteek zer egiten duten.

Posible al da gizakia makinek menderatzea?

Gizakia gizakiak menderatuta dago, eta hori da borrokatu behar duen askatasuna. Eta bai, teknologiak gure alde egiten duen bezala gure kontra ere egiten du... Jasotzen duguna merezitakoa izango da.

Gero eta argiago dago sistema honek matxurak dituela?

Alde guztietatik ari da pitzatzen, eta gu gain-behera horren lekuko gara.

Mesias, Hil da jainkoa, Salbatzaile, Errukia, Otoi, Pekatua, Bedeinkapena... Eliza da disko honetako jomuga nagusia?

Bai, misantropiaz eta askatasunaz gain, gero-ara konturatu nintzen erlijioa eta heriotza ere oso zabalduta zeudela hitzetan. Gizarte katoliko batean jaso dugun heziketaren eragina dira, inkontzienteki.

“Libre izateko duzun beharrak preso bihurtu zaitu”. Kontsumismoari zuzenean botatako torpedoa?



Matxura

Kontsumismoa, teknologia, komunikabideak, politikariak, eliza... Denek eskaintzen dute askatasuna. Nahi duzuna egiteko, eros-teko, ikusteko, sinesteko... Harrigarria da zenbat askatasun ditugun eskuragarri. Gora askatasuna!

"... maita dezagun anestesia". Mezu subliminala Matxuraren kantu batean? Nola dago Anestesia?

Anestesia "askatasun" anestesiataile hori da, ondo zetorkion abestiari, ia-ia izenburua ere izan zen. Eta bide batez omenaldi txiki bat, bai. Anestesia lozorroan dago, baina edozein egunetan esango dugu: piztu da piztia! Kar, kar.

Horren harira, Joseba Poncek idatzitako kantetan Tankard eta Jello Biafra&DOAren arrastoa hartu dut. Eskola zaharra, alegia.

Bai, kolaboratzaileak ere eskola zaharrekoak hartu ditugu, kar, kar. Diskoko hardcore-punkena da. Luxuzko lagunak izan ditugu: Oreka TX, Ander Lipus, Joseba Ponce, Imanol Epelde...

"Zu zeu izateko gaitasun hutsa errealitate birtuala da aro digitalean". Egiatzko gauza gutxi-egi egiten dugu?

Naturatik aldentzen bagara, eta "informazio" itsasoan sartu, lau hormen artean beti, pantaila bati begira... zaila dugu orekatuak izatea eta geure burua ezagutzea. Bere burua atxilotzen duen animalia bakarra gara.

Nolakoa izan zen Anestesiarekin Kukutzaren alde egindako kontzertua?

Gehiegizko indarkeria hura ikusi eta amorrak bultzatuta animatu ginen zerbait egite-

Txarly Diaz, Fer Apoa, Aitor Abio eta Mikel Kazalis dira Matxura taldeko partaideak. Musika industrialaren ildo hartu dute martxan jarri duten proiektu berri honetan.

ra. Batzuek ironikoki esan digute ea gazteak bota behar dituzten gu ikusteko.

Nola bizi duzu musika egiten bizirautea?

Dirua baino gauza garrantzitsuagoak asko daude, adibidez gustuko duzuna egitea, ahal duzun modu libreenean. Eta ekonomikoki gorabeheratsua izan arren, arimarentzat babarrunak dira.

Beranduegi heldu da Mikel Kazalisek idatzitako lehen kanta komertziala?

Kar, kar, kar! Bai, beranduegi, inork ez du sinesten hainbeste zarata egin ondoren abesti melodiko eta "komertzial" bat egitea! Ez dakit horrenbesterako den, baina uste nuen agian Gaztean sartuko ginela...

Batek baino gehiagok dio garai gogor hauetan muturreko musika dela soinu banda naturalena. Hori izan da beti zure testuingurua. Zer diozu?

Basapiztiak ere arriskuan sentitzen denean hortzak erakusten ditu. Hori da uneko bere adierazpena. Halako zerbait sentitzen baduzu, logikoa da hala erantzutea. Baina niri gustatzen zait estilo ezberdinak egotea, eta musika lasaia ere bai, denak ez du egurra izan behar. Gure sentimendu guztiek irtenbidea izan behar dute.

Noiz ikusiko zaituztegu agertokietan? Nolakoak izango dira zuen zuzenekoak?

Zaila da gure agendak bateratzea, baina ari gara ahal dugunean entseatzeko eta bitartean zuzeneko beste guztia prestatzen. Espe- ro dugu martxoarako prest egotea. Potenteak izango dira kontzertuak. Musika irudiekin indartu nahi dugu, bideoak proiektatuz. ■



Euskal Kulturaren Urtekaria

Labirintoan ez galtzeko gida

Mila deabruren urtea izan da 2011, matxinada, istilu, murrizketa ugariren lekuko. Proiektu berriak jaio dira baita, tamalez, batzuk lurperatu ere. Albiste handiena politikoa izan da, seguruenik: ETak ekintza armatuak behin betiko eten ditu. Horiek denek izan dute eta izango dute kulturaren eraginik. 2011-2012ko Euskal Kulturaren Urtekarian esplikatu nahi izan dugu zertan eta nola, gertaeren labirintoan gal ez zaitezten.

GORKA BEREZIARTUA

“INOIZ EZAGUTU EZ DUGUN mundu bat hasi da. Edo bestela esanda guk ezagutu dugun moduan, mundua desagertu da”. Lorea Agirrereren *Narrazio, guraize eta post-it* kronikatik atera dugu esaldia. Artikulu horrekin zabalduko du Urtekaria eta, besteak beste, ETaren iragarpenak kulturaren izango duen eragina, Joseba Sarrionandiaren Euskadi Sariarekin izan diren gorabeherak, ditzosozko “errelato”-aren inguruko eztabaidak, azken hauteskundeek sortutako aldaketa, diru-laguntzen murrizketak edo Kukutza eraistea hartu ditu

hizpide. Esandakoa, mila deabruren urtea izan dela 2011. Urte kriminala. Baina lasai, Angel Erro daukagu eta, krimena nork egin den aurkitzeko. *Tractatus Poetico-Criminologicus* saiakeran kontatu dizkigu poesia nork hil duen bilatzeko egin dituen peskizak, labanaren ahoa bezain fina den ironiaz.

Dena ez denez atzera begiratzea izango, etorkizunean euskal kulturaren ikusiko ditugun tendentziak aurreratzen ahalegindu gara Joe-rak sailean. Landutako gaien artean, egile-eskubideak Euskal Herriatik kudeatu ahal izateko dauden aukerez idatzi du Igor Estankonak, telebistaren etorkizunaz Iñako Gurrutxagak eta krisi garaiotan euskara elkarrekin urratu ditzaketen bideez Malores Etxeberriak.

Euskal kulturaren urteko hamar pertsona garrantzitsuenak aukeratu ditugu ARGIAren erredakzioan; azken hilabeteetan gurean bildu ditugun adierazpen esanguratsuenak ere ekarri dizkizugu; eta jarraian, sailez sail, kulturaren esparru bakoitzean jazotakoa aztertu dugu, albisterik esanguratsuenak bildu, baita irakurleak ikuspegi objektiboagoa izan dezan lagunduko duten datuak ere.

Bilketa eta analisi lan horri gehitzen zaio Urtekariaren bigarren zatia osatzen duen Euskal Kulturaren Aurkibidea: Euskal Herriko kultur jardueretan diharduten pertsonekin eta taldeekin harremanetan jartzeko gida praktikoa eskaini nahi izan dizugu aurten ere.

Krisiak asko markatutako panorama da euskal kulturarena, sektore guztiak jipoitu ditu makilaz ala borraz. Baina sasiak baztertuta, bizi-bizi jarraitzen duela ere ikusten da, zailtasunei aurre egiten ari dela eta sortzeko gaitasunean murrizketarik ez dagoela. ■



BERTSO EGUNA 2012

Urtarrilaren 28an
Donostian

12:00 - KALEZ KALE

Donostiako Alde Zaharrean

18:00 - EKITALDI NAGUSIA

Kursaaleko Areto Nagusian

21:00 - AFARIA eta FESTA

Kursaaleko NiNeu Jatetxean

 Antolatzaileak:



donostiakultura.com
San Sebastián, ciudad de la cultura

 Babeslea:



 Laguntzaileak:




Liburuak

KRITIKA

Eszenatokiko aztarnak hasten direnean.
Amaia Iturbide.
Erein. 168 orrialde. 15 euro.

Helduen literatura
Igor Estankona



Leku propio bat

HERMETISMOTIK eta poesia kriptiko xamarretik arintasunera momentu batean pasazten zaitu Amaia Iturbidek *–Eskailera- ren bi aldeetan* (1986), *Itzulbidea* (1992), *Gelak eta zelaia* (1994), *Lore mutuak eta tuaren ezkontzak* (2006)–. Azken *Labirintoaren orduak* (2008) ere ezin izan genuen zehatz definitu, hainbeste poesia ezin laburbildukeran. Eite klasikoa, arteari egindako erreferentziak, erritmo pausatua... suabe sarraraziko zaitu barrura Iturbidek, baina apurka-apurka kiribiltzen ikusiko duzu hizkuntza, kolorez betetzen lerroak, irudiz burua: “Stanley Kubricken *A clockwork orange* erakusten,/ kiosko-collageak/ kartel-simulakroak edo/ kale-museoak/ leku propio bat betetzen zuten”. Horrela da Iturbideren estiloa, batzuetan hanpata, beste batzutan pop, leku propio eta berezi bat asmatu duena irudimena aske erabiltzeko.

Poemategia ontzeko lanabes behinena sinboloa izan da. Idazleak berak ere badio zein motatakoa den sinbolismo hori, errealitatek eratorria: “Hasierako sinbolismo mugagabe edo urrun batetik egunerokotasun bati atxikitako sinbolismoraino doa. Sinbolismoak ere errealitatearen parte baitira”.

Hitzaren zentzu hertsia baino harago eta sakonago jo behar da, beraz, osorik ulertzeko esanahia. Begi bistakoaren eta hiztegi definizioaren etsaia da *Eszenatokiko aztarnak hasten direnean*, sentsibilitate faltsuaren kontrakoa, deskripzio objektiboa gainditzeko duena. Iturbidek hizkuntza poetikoa ezagutza-hizkuntza moduan erabili du, nahasteen eta sentsazio berrien bila: “Azoka betean dut sagarra barruan/ patioaren ezkutuan/ maskararen atzealde hutsean”.

Halabarharrez, irakurketak ere irekia eta aurrejuzkurik gabea izan behar du. Ahaztu ezazu gauzen forma erreala, egin kasu poetari, berarekin sartu logikarik ez duen beste logika batek agintzen duen lurraldera. Era horretan soilik uki dezakezu zuk, liburura hurreratu zaren horrek, idazlearen subkontzientea. Inoiz Parnasoko edertasuna kausituko duzu eta beste batzuetan, artifiziala eta itsusia denaren bitartez, mundu futurista ezinezko bat. *Labirintoaren orduak* gomendagarria zela esan bagenuen, finagoa irudituko zaigu oraindik *Eszenatokiko aztarnak hasten direnean*. Komunean dute hitz itxuraz suabeekin ideia indartsuak adierazteko gaitasuna, metafisikarako joera, hoshidetasunaren erabilera eta erritmoaren domeinua, baina oraingoan pauso bat egin du aurrera idazle bilbotarrak, norabideari eutsiz.



Euskal Herria zer den, eta nola nahi genukeen

Galdera bi daude Elkar argitaletxeak argitaratu duen *Euskal Herria: errealitatea eta utopia* liburuaren abiapuntuan. “Zer da Euskal Herria?” galdera, batetik; eta “zer nahi dugu izatea?” bestetik. Errealitatea eta desira, alegia. Galdera horiei erantzuten saiatu dira Pako Aristi, Joxe Azurmendi, Brian Currin, Joseba Zulaika eta Juan Jose Ibarretxe.




Euskal Herria... Batzuen artean.
Elkar.
208 orrialde.
20 euro.

Alderdikrazia, bake-prozesuetako esperientzia, demokraziaren erronkak, ETaren historia, hainbat kontzepturen (adiskidetzea, erruduntasuna...) gaineko eztabaida... aurkituko ditu irakurleak orriotan. Liburua egile horiek EHure 2011ko Udako Ikastaroetan egin dako ekarpenak bilduta osatu dute. ■

Zamorako kartzelaren historia

1960ko hamarkadaren bukaeratik 1970ekoaren erdialdera, Frankismoaren gogorak pairatzen ari zen Hego Euskal Herria eta apaiz talde batek erregimen totalitario horri aurre egin nahi izan zion. Sermoiak esan zituzten, testuak idatzi zituzten, gose grebak eta itxialdiak egin zituzten eta apurka-apurka erresistentziaren ikur bihurtu ziren. Baina halako injustizien aurrean ahotsa goratzen duenari sarri tokatzen zaio errepresioa eta kartzela pairatu beharra. Hala gertatu zitzaizen Txalaparta argitaletxeak publikatu duen liburu honetako protagonistei ere: *Zamorako apaiz-kartzela* liburuan, haien historia bildu dute, horretarako dokumentazio zabala erabiliz. ■



Zamorako apaiz-kartzela.
Batzuen artean.
Txalaparta.
404 orrialde.
20 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Hutsa.
Hutsa.
MusikHerria.
Iraupena: 27'48".
8 euro.

Asetu ezineko goxotasuna

EDUKIRIK GABE abiatutako talde berri hau Maria Riverok eta Eriz Perezek osatzen dute, beste hainbat musika proiektu gogorrangoetan lanean diharduten bi lagunek. Kafe bero baten parean jarri eta kanta hauek idatzi, kanta hauez gozatu eta beste hainbat aukera jartzen dizkigute mahai eta taza gainean. Gitarra akustikoa, erregistro aberatseko ahots ederra, armonika eta perkusio apur baten laguntzarekin. Eta kafearen lurrunaren artean esango nuke folka,

popa, bossa, soula, latinoak eta bluesa pasatzen, dantzan, ikusi ditudala; hori bai, beti ere era goxo eta era minimalis-tan, ia oharkabea. Ez da hauskorra, baina ia. Hitzetan ere poesia, umeak, egia borobilak eta malenkonioa eta optimismoaren arteko bideak elkartruka-tzen dira. Negar egin duzula? Barre? Agian kafea izan da, edo behingoz pentsatzeko gelditu zarela.

www.hutsa.net

Hutsa

«Kafea eta musika, diruditena baino gehiago dira beti»

Zer da zuentzat kafe bat hartzea? Barealdia? Epeltasuna? Hausnarke-ta? Sormena?

Kafe bat hartzeak guretzat zoramen honetan, irakurtzeko, lagunekin hitz egiteko, pentsatzeko, berotzeko... geldiuena irudikatzen du.

Kafea, musika bezala, bere horretan, purutasunean bizitzen al da askotan? Kafea eta musika, diruditena baino gehiago dira beti, pertsona bakoitzarentzat zentzu ezberdina dute; eta, jakina, bai kafea, baita musika ere, era ezberdinetan hartzen ditugu gure momentuen arabera.

Folkaren biluztasunaz eta pop-roc-kaz gain, musika latinoak eta bossak ere zuen bihotzak samurtzen ditu, ezta?

Musika dago gure bihotzean eta honi atea ireki dizkiogu ateratzeko baimen osoarekin, horregatik hainbeste estilo, hainbeste akorde gurutzatuta... Ea bide honetan gurea dena topatzen dugun, musikak berak, bihotzak erabakiko du.



“Hutsa”-k gelditzen zarete kantuekin barruak hustu ostean? Huts horrek bultzatzen zaituzte kantak egitera? Hutsa da funtsa?

Hutsa izan da proiektu honen funtsa, barneko hutsak, kanpoko hutsak, sentimendu hutsak, ohe hutsak... Hori guztia bideratu nahian musikak husten gaituela konturatu ginenetik hori izan da bidea beti. Kasu honetan, barne-barnekoak ateratzeko eta gure

barruan hutsak betetzeko erabili dugu.

Musikaren itsasoan MusikHerria da igeri egiten ikasteko modu aproposenetako bat?

Dagoenaren artean behintzat koherenteena da. Guretzat kultura zaindu beharreko ondarea da, hori da lehen-tasuna, gero norbanakoarena, baina lehenik eta behin gizartearena; eta bide horretan ezin ditugu ulertu gauzak beste era batera, SGAE eta Sacem bezalako enpresei ez diegu etekinik emango, eta MusikHerrian, hori argi daukagu. Gure helburu eta filosofia-rekin bat egiten du arlo askotan.

Zer ematen dizue ildo akustikoak zuen beste taldeek ematen ez dizuetena?

Sentsazio ezberdinak, beste mundu batean esperimendatzeko aukera, aniztasun musikala eta batez ere, sentimendu ezberdinak bai konposatzerako orduan, baita eszenatorkietan ere. Polita da tar-tekatzea, aberasgarria. ■



Ezpalak

JON TORNER

Arrokiagako herria pastorala prestatzen ari da

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA



JEAN BORDAXAR kantariak idatzitako *Joxe Mendiaga* pastoral eskainiko dute uztailaren 29an eta abuztuaren 5ean Arrokiagako (Lapurdi) herri-

tarrek. 1845ean jaio zen Joxe Mendiaga olerkaria Alduden (Nafarroa Beherea), eta 1937an hil zen Montevideon, Uruguako hiriburuan. Argentinan eta Txilen ere bizi izan zen, eta bere bertso eta olerkiak Montevideoko *Euskal Erria* aldizkarian eta Baionako *Eskual Herria*, *Eskualdun Ona* eta *Eskualdunan* plazaratu zituen. Aurten beteko dira 75 urte Mendiaga hil zela, irailaren 12an. Badira 17 urte Arrokiagak pastoralik egiten ez duela. 1995ean prestatu zuen orain arteko azkena: Jean Louis Davantek idatzitako *Aguirre presidentia* (argazkian).

Martxoan egingo dute ICANN-en '.eus' domeinuaren eskaera

PUNTUEUS elkarteak martxoan egingo du Interneteko domeinuak esleitzen dituen ICANN erakundearen '.eus'-en eskaera formala, elkarteko Iratxe Esnaolak ARGIAri adierazi dionez. Eskari berriak egiteko epea apirilaren 12ra arte egongo da irekita. Elkartetik adierazi dutenez "jaiotzatik espero genuen momentua da hau". Zortzi hilabetera egingo dituzte lehen esleipen eta baieztapenak, "baina eskaera batzuek arazoak badiutuzte" 20 hilabetera luza daiteke azterketa, Esnaolaren hitzetan. ICANNen webgunean (www.icann.org) azaltzen dutenez, goi mailako domeinu orokor berriak (gTLD) eskatzeko 185.000 dolar ordaindu beharko dira. Elkartetik adierazi dute finantziario arazorik ez dutela, Eusko Jaurlaritzak orain hiru urte 150.000 euroko diru laguntza eman zielako. "Gure ardua da .eus domeinua lortzea", dio eta baikorra da. Beren arrazoiketa euskara eta euskal kulturaren sustapenean oinarritutako dutela adierazi du PuntuEus elkarteko kideak.

Txaro Fontalba, Guillermo Sarmiento, Sandra Montero eta Mireya Martin artista nafarren lanez osatutako erakusketa paratu dute Uharteko (Nafarroa) Arte Garaikideko Zentroan. Bideo sorkuntzak, argazkiak eta margolanak bildu dituzte bertan, besteak beste. Globalizazioa, alzheimerra, anorexia, pop kultura... gai ugari heldu diote lau artistok. Erakusketa martxoaren 11ra arte izango da zabalik.



Eusko Sinfonikoaren (EOS)

2012ko programa abian da jada. Pasa den astean kontzertu bana eman zuen Donostiako

Kursaal auditoriumean eta Bilboko Euskalduna jauregian, eta aste honetan hiru gehiago eskainiko ditu: 16an berriro Kursalean berriro, 17an Iruñeko Baluarte antzokian eta 18an Gasteizko Principal antzokian. M. Finnisyyren *Zortziko*, A. Dormanen *Frozen in Time* eta J. Brahmsen *4. Sinfonia* interpretatuko ditu EOSek.

● **Txabi Arnal irakasleak haur literaturan heriotza nola lantzen den aztertu du berriki egindako tesian. Berriak egindako elkarrizketan gaiari buruz aritu da:** «Heriotza oso tristea da, baina naturala eta unibertsala da aldi berean. Gaur egun, eskola curriculumean ez zaio tarterik eskaintzen. Ingurune ikasgaian gure haurrek bizitzaren faseak ikasten dituzte; jaiotza, nerabezaroa... Eta heriotza ez da inon agertzen. Eskolako norbait aitona hiltzen zaionean irakaslea zer egin jakin ezinda geratzen da. Lan honen helburua hutsune hori betetzea izan daiteke. Literaturak ez dauka erantzunik, baina baliabide aproposa da haurrekin heriotza lantzeko. (...) Heriotzaren inguruko liburuak ez dira irakurtzen, eta heriotza gertutik bizitakoan hasten dira gaia lantzen antidoto gisa, une egokia delakoan. Agian ez da momentua. Liburu horiek [Sylvia Van Ommen *Regalix* eta *Como es posible*, adibidez] balio literario handikoak dira, eta edozein egunetan irakurri behar dira, haurrentzat onuragarriak baitira. Gaia ez dela aproposa iruditzen zaigu, eta liburu horiek ez dira erosten. Liburu horiek argitara atera behar dira».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

MIKEL GARCIA IDIAKEZ





Begirada berri bat egunero

FOTOGRAFIA DIGITALAREN AROAN, argazki galeria eder askoak aurki ditzakegu Interneten. Flickr (www.flickr.com) bezalako ekimenek benetako artelanak biltzen dituzte, eta erakusleho aproposa dira kamerarekin atzemandako irudiak zintzilikatzeko. Flickr-en argazki ugari ditu bilduak Gonzalo Iza 27 urteko zumarragarrak, horietako hainbat www.unafotopordia.com (Argazki bat eguneko) bere blogetik arrantzatuak. 187.000 bisita baino gehiago izan dituen webgune hau 2011n zehar osatu du Izak, egunero foto bat igoaz. Bilduma erakargarria biribildu du, paisaiak, erretratuak, animaliak, jana –arau eta sekretu propioak ditu janari-argazkilaritzak–, eguneroan ikusitako detaileak eta inguruko txokoak dotorezia handiarekin irudikatuz.

Nabarmentzekoa da paisaia sorta, ikusgarriak batzuetan, bere soiltasunean ederrak bestetzetan,

misteriotsuak, kolore indartsuz eta kontrastez zipriztinduak, beheko argazkietan ikus daitekeenez. Perspektibarekin, enkoadraketarekin, objektibo motarekin, fokatze eta ez-fokatzearekin... nola jolasten duen ere nabaria da erretratuetan. Zailena, arrunta dirudien eguneroko begiradan foto interesgarriak harrapatzea, Zumarragakoak baitio atzerrian, oporretara goazenean adibidez, dena iruditzen zaigula berri eta ezberdin, baina kontrakoa gertatzen dela etxean. Hala ere, denbora hartuz eta irudimena landuz, irudi originalak eta bereziak lortzeko urrutira joan beharrik ez dagoela erakutsi du berak.

Proiektuak ordenagailu pantailatik aretora egingo du jauzi, batutako 365 argazkiekin erakusketa antolatu baitute. Otsailaren 3tik aurrera, hamar egunez, ikusgai izango dira Zumarragako kulturetxean.



**AMETZ BATEN
OINORDEKO GARA**
UNIVERSIDAD VASCA EUSKO IRAKASTOLA NAGUSIA

www.ehu.es/ametsbateninordekogara

Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea


1936



Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. Berorik eza. Motxaille, buhame. 2. Haragitarako edo esnetarako hazten diren abereen multzoa. Hamaika erromatar zenbakiz. 3. Noren atzizkia. Oina duena. 4. **Argazkian**. Betealdia, okada. 5. Espero den bezain onuragarria dena. Atsegin hartu, laketa izan. Erdu, etor zaitez. 6. Musika idazten denean, soinuak adierazteko ikurrak. Ospakizun baten parte hartzeko eskatu. 7. Guztiei dagokiena. Izuti. 8. Adore emateko hitza. Ontzat harrarazi, onarrarazi.

Goitik behera:

1. Osotasun bat eratzen duten zatien elkar hartze egokia. 2. Ur gazizko eremu handi. 3. Tinko, irmo. Emakumezko jantzi. 4. Herri hizkeran, zer. Errenkada, lerro. 5. Zelako. 6. Zezen zikiratuak. 'Kristo ondoren'-en laburdura. 7. Elikatu. Itxaron. 8. Sotil, apain. 9. Oso garbi eta nahaspilarik gabe. 10. Argazki baten azpian jartzen den testua. Abesti batean errepikapena adierazten du. 11. Perretxikoa. 12. Lerde. 13. Berehala. 14. ... otoan, ezustean. 15. Zeuri.

Garrantzitsuena biltzen segitzea da

40 urte bete berri dituen lagun talde bat urteurrena non ospatu erabakitzeke elkartu da. Azkenean, Plaza Nagusiko Gurea jatetxean afaltzea erabaki dute, zerbitzari guztiak oso atseginak eta ikusteko modukoak direlako.

Hamar urte geroago beste afari bat antolatzea erabaki dute. Berritua ere denak ados jarri dira Gurea jatetxera joateko, menua oso ona delako eta sekulako ardo-karta dutelako.

60 urtera iritsi eta eztabaida askoren ondoren, atzera Gurea jatetxea aukeratu dute, oso leku lasaia delako eta erretzaileen-

tzat berogailuz hornituriko bal-koia estreinatu dutelako.

Handik hamar urtera, lagun horiek beraiek, 70 urte beteta, non afaldu behar duten erabakitzera bildu dira berritua. Oraingo honetan ere Gurea jatetxea hautatu dute, gurgildun aukientzat egokitutako sarrera duelako.

80 urte betetzeko daudela, hortxe elkartu dira berriz jate-txea aukeratzeko. Inork ez du zalantzarik izan. Gurea Jatetxera joango dira... inoiz ez baitira bertan izan!

Barre egin, baina kontuak ateratu!

Sudokuak

Erraza

6				2	1		5
		4	9				
		3		1	6	9	2
1	5			4		9	7
		8		7		6	
3	9		6			4	1
	6	1	3	4		5	
				7	4		
7	5	2					9

Zaila

6				4	5		
1	9		3			4	6
		3					
3				8		9	
	4						8
		5		1			3
						8	
	1	2			8		3
			9	7			2

Soluzioak

6	8	5	1	9	2	7	4
3	2	7	4	6	5	8	1
1	5	9	3	8	7	2	6
4	7	6	2	1	3	5	8
2	1	4	9	5	3	7	6
7	9	4	8	2	1	3	5

Erraza

Zaila

8	3	6	9	7	4	1	5
1	2	6	5	8	7	3	4
5	7	4	2	3	1	8	9
7	8	5	4	1	9	6	2
2	4	9	7	6	3	5	8
3	6	1	5	8	2	9	4
4	5	3	1	9	6	2	7
1	9	8	3	2	7	4	6
6	2	7	8	4	5	3	1

Goitik behera: 1. Harmonia. 2. Ozeano. 3. Tink. 4. Zeg. 5. Nola. 6. Idia. 7. Jan. 8. Dorre. 9. Txukun. 10. Oina. 11. Ziza. 12. Adur. 13. Taka. 14. Ozo. 15. Zuri.

Ezker-eskuin: 1. Horz. 2. Azenda. 3. Ren. 4. Ondun. 5. On. 6. Laketa. 7. Orokor. 8. Onetaz. 9. Aupa. 10. Onetaz.



KRISI EKONOMIKOA

Sustraiak eta alternatibak

- Etorkizun blokeatua Europako Batasunean
- Merkatuen diktadurari aurre egitea posible da
- Enpleguaren gainbehera eta alternatibak
- Islandia eta Irlanda, krisiaren aurrean bi eredu
- Espainiaren zorra: zenbatekoa da eta nola sortu da?
- Ekonomia ekologikoaren begirada

Hemeroteka: Michel Husson, Vicenç Navarro, Dani Gómez-Olivé, Eulalia Reguant, Joan Martinez Allier, Bibiana Medialdea...

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Fukushimaren ondorioak Frantzian

FRANTZIAKO ESTATUAN dauden 58 zentral nuklearrek segurtasun neurri berriak ezarri beharko dituzte zabalik segitzekotan. Segurtasun Nuklearraren Erakundeak (ASN) bete beharreko neurriak zerrendatu ditu, eta zentralak ustiatzen dituen EDF konpainiari urtarrilaren 31ra arteko epea eman dio horiek gauzatzeko lanen plangintza eta aurrekontua zehaztu ditzan.

Batetik, zentral bakoitzean uholdeen, lurrikaren eta erradio-aktibitatearen aurka babesa emango duen bunker bat eraiki beharko da. Bunker bakoitzean erantzun azkarreko diesel sorgailua egongo da, hamar milioi eurotik gorako kostua izango duena, eta ehun pertsonak lan egiteko bolumena izango duena.

Bestetik, erregaia babesten duten igerilekuak eta hozte-zirkuituak hobetu beharko dira, hau da, hipotesi txarrenetan ere hozte-zirkuituek ez huts egiteko behar diren inbertsioak egin beharko dira.

Azkenik, lurrazpiko uren nondik norakoak eta lurraren sismologia-maialak berraztertu beharko dituzte.

ASNren arabera, itxi egingo dituzte aipatu baldintzak betetzen ez dituzten zentralak. Nik dakidala, Garoñan (Espainia) ez da horrelako eskemarik planteatzen; eta planteatuko balitz, egin beharreko inbertsioa errentagarria izango litzateke?



BILL HEWITT

Golfekh-eko zentral nuklearra, Tarn eta Garona departamentuan.



Newtonen lanak on-line

CAMBRIDGEKO UNIBERTSITATEKO (Erresuma Batua) liburutegia Isaac Newtonen lanak digitalizatu eta Interneten jartzen ari da. Orain arte argitara emandako lanen artean ospetsuena *Philosophiae naturalis principia mathematica* (1687) izan da; lan horretan, besteak beste, grabitazioaren legea azaldu zuen zientzialari ingelesak.

Orain arte, Newtonen edo haren eragin zuzenez beste batzuek idatzitako 4.000 orri baino gehiago argitaratu dira, eta hurrengo hilabeteetan beste milaka batzuk sareratu dituzte. 2010ean hasi zen digitalizazio lan hau. Interesa duenak ondoko helbidera jo dezake: ttiki.com/33817.



Atomoetan ere errelebo lasterketa

Donostia International Physics Center zentroko Thomas Frederiksenek, ikerlari japoniar batzuekin batera, hidrogeno atomoak topatu ditu errelebo lasterketa batean arituko balira bezala jokatzeko. Aurkikuntzak aurrerakada nabarmenak ekar ditzake tresna elektronikoen eboluzioan.

<http://ttiki.com/33818> (Gaztelaniaz)

Seinale bat bidaltzean argia emititzen duten neuronak

Harvard-ko Unibertsitateko (AEB) ikerlari talde batek, hainbat manipulazio genetiko egin ondoren, seinaleak bidaltzen dituzten neuronek argia emititzea lortu dute. Aurkikuntza horrek asko lagundu dezake garunean gertatzen diren hainbat prozesu hobeto ulertzen, ikaskuntzarena tarteko.

<http://ttiki.com/33819> (Gaztelaniaz)

Muskerrak eta dinosauroak robotikaren eredu

Robotikan eredu asko erabiltzen dira animalien mugimendua kopiaatzeko. Ereduen artean muskerren eta dinosauroen mugimenduak dira behatuenak; batez ere, jauzi egin aurretik isatsa orekatzaile dinamiko gisa erabiltzeagatik.

<http://ttiki.com/33820> (Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO



JAKOBA ERREKONDO

Barazkitza

Krisi ekonomikoa eta bizitza kalitatea. Bati ihesi eta bestearen bila baratzea nonahi ugaritzen ari da. Terraza eta balkoietan, autopista saihetseko penditzetan, edozein lur ona da... Gogoia izan behar.

Argazkiko baratze hau Orion dago. Bertako gazteek errio bazterreko eraikin zahar bat okupatua dute gaztetxetarako. Honek aldamenean duen belardian baratzea sortu dute. Bertan paratu duten arraun ontzian eta atzeko sareko itxitura koloretsuaren barruan barazki ugari izan dute pasa den sasoiaren. Errio bazterreko herriko ibilbide ezagunenaren ondoren egonik, begi bistako baratzea da, ikasteko egokia oso. Eskuera izate hori, baina, bertakoa hartu eta eramateko aprobe txatu du bateren batek, agidanean, uzta agerian zenean, "Ez hartu, eskatu" zioen txartela jarri baitzuten. Baratzezale eta elkarrekin lan egiteko prest dauden gazteak. Eta eskuzabalak.



Artaburutsua

NIRE IRAKURKETA gaizkideek badakite: beti izan naiz Ambrose Bierceren inbidiatan. Hark idatzi zuen gustukoenetako liburuen artean dudak hiztegi bat: *The Devil's Dictionary*, deabruaren hiztegia, alegia. Tamaina hartu eta zehatz adierazten du ez nolanahi hautatutako hitz bakoitzaren esanahia; adibidez, legezkoa



J.H.E. PARTINGTON

Ambrose Bierce (1842-1914?).

"dagokion epailearen borondatearekin bateragarria" dena da, edo historialaria "munta handiko txutu-mutxu kontalaria".

Landareen ingurukoarekin antzeko zerbait egi-teak ikaragarri poztuko ninduke. Aza hostoa, baba lorea, artaburua, aitzurra, zokor-mazoa, melokotoia, sega-potoa, porru haziak, sasía, alferra, zorria, arrosadun arantza, jorraia, elorri izatea, simaurtu, eutsagaia, txertaka edo txertatu gabea, mihura, metatxorroa, eta abar zer diren, benetan zer diren, behin betiko bildu eta jasota gustura ikusiko nituzke.

Lehenagoan ohelagun batek xalo asko botatakoea ekarri nuen hona: pinuen adar muturretan ageri diren prozesionario beldarraren habiak, zeta zurizko distiratsuak, zuhaitz beltz horien loreak ote ziren galdetu zuenekoak. Pinu beltza (*Pinus radiata*) beldarretan loratzen dela, etekina hori duela uste duenak hiztegi horren ikuspuntutik ez dabil oso urrun.

Ohea bera bezain bertakoa ez, baina urrutira gabeko beste batek patata zein arbolak ematen zuen galdetu zidanekoak etortzen zait burura horrelakoren bat entzuten dudanero.

Tristura harrotzen dit inguruaren gure ikuskera horrek, baita irribarrea piztu ere.

Artoa (*Zea mays*) euskal paisaia kulturaletik desgertzen ari den honetan, benetako artaburuak iraungo duela jakiteak behintzat ikaragarritzko lasaitasuna ematen dit. Eta musika asarrea, berebizikoa, egiten du.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Rah, Rah, Rah, kirol berria sortu da!

WWW.STEELERETTES.COM



Ezkerrean, Pittsburgheko Steeleretteak 1968an. Azpian, Johnny Campbell, lehen cheerleadertzat jotzen dena, 1898an Minnesotako amerikar futbol taldea animatzeko egin zuen ahaleginagatik.



PITTSBURGH (AEB), 1961. Hiriko Steelers amerikar futboleko talde profesionalak Robert Morris institutuan ikasten zuten zortzi neskato hautatu zituen, NFLko frankizien lehen cheerleader edo animatzaile taldea osatzeko. Steelers taldeak ez zuen ia zalerik, estadiorik ere ez, eta kirol emaitza kaskarrak ere ez zituzten lagun, horregatik erabaki zuten Steeleretteak martxan jartzea. Animatzaile taldea 1969an desagertu zen, itxura denez, bere helburua erabat bete gabe; Pittsburgheko futbol taldea 70eko hamarkadan hasiko zen nabarmentzen, Steeleretteen animoak jasotzeari utzi zionean, hain zuzen. Baina zortzikotearen eskutik, jarduerari bitxi horrek profesionaltasunerako jauzia egin zuen.

Hori baino lehen, cheerleaderrek bide luzea eginga zuten AEBetako unibertsitateetan. XIX. mende amaieran Princetoneko ikasle Thomas Peebles-i unibertsitateko kirol taldeak animatzeko eta ikusleak motibatzen jarduerak antolatzea bururatu zitzaion. Baina ideia gauzatzen lehena Minnesota Unibertsitateko Johnny Campbell izan zen. 1898an Minnesotako amerikar futbol taldeak

Northwestern taldearen aurka jokatu zuen eta Campbellek aurrez prestatutako leloa kantatu zuen jendaurrian: "Rah, Rah, Rah! Ski-U-Mah! Hoo-Rah! Hoo-Rah! Varsity! Varsity! Minn-e-so-tah!". Leloen maila literarioak ez du mende osoan bilakaera handirik izan, baina beste elementu batzuk asko aldatu dira.

Hasieran gizonezkoek soilik parte hartzen zuten animatzaile taldeetan. Baina 1923an emakumezkoek ere baimena eman zieten. Gainerako kirol jardueretan parte hartzerik ez zuten, ponponak astintzen hasi ziren buru-belarri, eta 1940rako cheerleader gehienak emakumezkoak ziren.

1948an NCA sortu zen, AEBetako Cheerleader Elkarte Nazionala, eta 30 urte geroago lehen cheerleader txapelketa antolatu zuten. Orduz geroztik, beste kirol taldeetako loturarik gabeko cheerleader talde independenteak sortzen hasi ziren, jarduerari gimnastikoak gero eta konplexuagoak bilakatu ziren, eta animatzea kirol olimpiko izenda dezaten eskatzen duten lehen ahotsak ere entzuten hasi dira.



Arrastoak

50 urte Indalecio Prieto politikari bizkaitarra hil zela

INDALECIO PRIETO duela 50 urte hil zen, 1962ko otsailaren 11n, erbestean, Mexikon hain zuzen, eta, urteurrena aitzakia, EHUK eta Eusko Ikaskuntzak politikariari buruzko jardunaldiak antolatuko dituzte otsailaren 22 eta 23an, Bilboko Bizkaia aretoan. 1883an Oviedon jaio arren, txikitatik Bilbon bizi izan zen, bertako zinegotzia izan zen, eta Espainiako Gorteetan ere zazpi legegintzaldiz Bizkaia ordezkatu zuen.

Jardunaldietan XX. mendeko euskal politikaririk nabarmenetakoak Errepublikarekin, euskal nazionalismoarekin edo komunismoarekin izan zuen harremana jorratuko da, baita sozialismoari egindako ekarpena ere.



HOY.ES

Indalecio Prietori buruzko jardunaldiak egingo dira, bere heriotzaren 50. urteurrenean.

Txillardeg Hil da herrigilea

Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardeg, 2012ko urtarrilaren 14an hil zen. Berarekin desagertu da Euskal Herriaren azken mende erdia ulertzeko ezinbesteko pertsona. Zenbazezinak, sailkagaitzak dira hark egindako lanak. Hil da idazlea, politikaria, pentsalaria, hizkuntzalaria. Txillardeg asko joan zaizkigu Txillardeg bakararen azken arnasarekin.

GORKA BEREZIARTUA


DANI BLANCO



KOLPE BAT EMAN ZION MAHAIAIRI “ez dago zereginik” esan ondoren; elkarrizketa batean izandako beroaldia —mahukak bilduta ari zen, izan ere—, keinu bat besterik ez; edo zerbait gehiago, beharbada. *Txillardeg* izan den guztia ezin laburbil daiteke artikulu batean. Ez batean, ez bitan, hirutan, bostetan, zortzitan, hamahirutan... Ezin da. Osotasuna ordezkatzen duen parte bilatu behar, keinu

bat, bizitza baten sinekdokea entseatzeko. Eta mahai-kolpe horrek balio du, izan zitekeelako 2007an egoera politikoak sortzen zion ezinegonak eragindako astindua; baina keinu berdina egiten imajina zenezakeen 1958an EAJrengandik urrundu —“horrela ez dago zereginik”— eta ETA sortzen. Keinu berdina 1967an, V. biltzarraren ondoren ETA utzi zuenean. Mahaian danba,

“horrela ez dago zereginik”, Euskara Batua behar zela. Beste kolpe bat, Euskal Herrian Euskaraz, ezin zelako hizkuntz eskubideen urraketa etengabea ametitu. *Leturiaren egunkari ezkutua*, ordura arteko euskal literaturaren mahai kostunbristari kolpea, ezin zelako horrela segi. “Horrela ez dago zereginik”, keinu berdina 2000.ean ere, borroka armatuari buruzko hausnarketa faltaren-



Txillardegia eskuinean, Mikel Atxagarekin hizketan, atzean Bitoriano Gandiaga dutela.

gatiak Batasunetik atera eta Aralarren sorreran parte hartzen. Keinu hura, 2007ko elkarriketa hartan, kazetariak Aralar utzi izanaz galdetu ziotenean. “Ez dago zereginik”.

Kolpea mahaian, zirt edo zart, irmo, erabakiak hartzeko beldurrik gabe, hala jardun zuen *Txillardegik* bizitza osoan. Hil da, baina haren bizitza eta lana ezinbestekoa da Euskal Herriaren azken mendeko historia politikoa, soziala eta kulturala ulertu ahal izateko.

Gerrak markatutako belaunaldi batekoa zen. 1940ko hamarkada ondo sartuta, Francoren “40 urteko bakea”-ren hastapenetan, tiro hotsek esnatzen zuten maiz Antigua auzoa, norbaiti Ondarretako kartzelan Elizaren eta Estatuaren berunezko bakea ematen ziotenean. Ez da ezinbestekoa bonbardaketaren lekuko izatea, nahikoa da 10 urterekin han preso daudenen senideak joan-etorrian ikustea, denik eta prozesio errukarrienean, Gernikako suak begietan ezin itzalita bizitzeko. Konturatzeko bonba guztiek ez dituztela eraikinak eta gorputzak suntsitzen, bizirik ateratzen direnak ere kiskaltzen dituztela, barrutik bada ere, eta mututzen, beraia ez den hizkuntza batean hitz eginarazten.

Esnezalearekin aritzen omen zen euskaraz *Txillardegiren* ama, semearekin inoiz ez. Mahaiari kolpea, “horrela ez dago zereginik” eta bere kabuz ikasi behar 17 urterekin, amari galdezka gramatika liburu

propioa osatuz. Hori zen Euskal Herria Frankismoan, txirtxilatutako ideia bat, ahapeka esan beharrekoa, herri bat izan zenaren lekuan geratutako azken hondarrak. Zaharberitu ez, osorik berreraiki behar zen zerbaite.

Lan horri eskaini dio bizitza osoa *Txillardegik*. Berpizkundeko pertsona izan da, euskal berpizkundeak behar zuen pertsona; interesatu da begien aurretik pasa zaion ia edozein gairekin, Donostiaren historiatik astronomiaraino, budismotik soziolinguistikaraino. Eta badira *Txillardegiz* seguruenik asko aipatuko ez diren aspektuak, kontrastea egiten dutelako-edo bere pertsonaia historikoa- ren irudiak eskatzen duen sendotasun serioarekin. Musikarekin zeukan sentsibilitatea da horietako bat –Chopin eta Debussyren lanekin hasi eta jazz pieza jostarietara eramaten zuen pianoa–, animalienganako errespetua beste bat, Markos Zapiainek *Txillardegia* eta *zimirino*a saiakeran erakutsi zuen gisan.

Idazlea, hizkuntzalaria, politikaria, pentsalaria... Etiketa guztien gainetik, *Txillardegia* herrigilea izan da, herri ikuspegi baten alde lan egin du, esparrua zeinahi izan dela ere. Bete-beteen asmatuz batzuetan –Euskara Batuaren alde egindako lana da horren lekuko–, eta denborarekin iritiz aldatuz bestetan –Bernardo Atxagarekin euskal idazleen zereginaz izandako eztabaidan, kasu–. Haren lan intelektual handia

gogoratuko du historiak, baina ez da ahaztu behar *Txillardegia* ez zela idazmahaiari itsatsita egotekoa. Konprometitua zen, mugimendu berrien sorreran agente aktibo, kezkatzen zuten aferetan inplikatzeko nekerik gabea, ezta engaiatze horrek deserrira eramanez ere.

Berandu aitortu zaio *Txillardegia* bere ekarria. Leku batzuetan, berandu bakarrik ez, gaizki ere bai, Euskaltzaindian, berbarako: hiru aldiz proposatu zuten Euskaltzain Oso izateko eta hiruretan beste norbait aukeratu zuten. Sektarismo kutsua hartu zien berak –eta beste hainbatek– akademiaren erabaki horiei: “Nire ibilbide politikoa oso ezaguna denez, ni bezalako pertsona bat ez da interesantea instituzio ofizialetan, Euskaltzaindian ere ez”. Alferrik izendatu zuten 2004an Ohorezko Euskaltzain, uko egin zion –mahaiari kolpea, “ez dago zereginik”–.

Euskal Herria aro berri batean sartzerako doanean hil da *Txillardegia*, berak beste batzuekin batera hasi zuen garaia, ETArek jarduerak zedarritutakoa, amaitu eta gutxira. Gaitza izango da datorren fasean aurretik zer gorde eta zer baztertu behar den erabakitzea, ezerk ez du berdin jarraituko, ezin du berdin jarraitu, ez politikan, ez kulturgingintzan, ez euskalgintzan. *Txillardegia* ren obra eta lan guztietatik batzuk baino ez dira gogoratuko belaunaldi batzuen buruan, historiak langintza mardulenak ere azkar murtzikatu, irentsi eta metabolizatzen ditu. Horregatik, ez gendake gaizki egingo lan horiek sortu zituen espiritua ere gurekin hartuko bagenu, Jose Luis Alvarez Enparantzak, *Txillardegik*, ardura kolektiboa eta autonomia pertsonala uztartuz ibili baitzuen bere bidea. Herriarekin egon zen, bere izaera galdu gabe. Kontsentsua bilatu zuen abertzaleen artean eta euskalgintzan, baina horrelakorik posible ez zenean, posizioa hartzeko beldurrik ere ez zuen eduki. Eta erakutsi zuen arauari obeditzea baino hobea dela norbere arauak egiten saiatzea, horretarako, batzuetan, mahaiari kolpe bat emanez “horrela ez dago zereginik” esan behar bada ere. ■





MADDI SORIA

Txillardegia: Inkonformista baten bizitza aberatsa

Baleren Bakaikoa Azurmendi

Joan zaigu betirako gure herriari guztia eman dion gizon inkonformista bat: *Txillardegia*. Zalantzarik gabe gure herriaren azken hamarkadetako historian hizki larri idatzita geratuko da bere izena, hori eta gehiago merezi baitu, nahiz eta bere momentu oparoenetan zegokion onespén hori, tamalez, behin eta berriz ukatu egin zitzaion.

Txillardegia pertsonalki ezagutzeko parada duela berrogei urte izan nuen. Hendaian hain zuzen. Eta geroztik bere laguna izateko parada izan dut eta horrek beti harro sentiarazi nau. Hendaian, behin eta berriz, azaldu zidan kezka Hegoaldean dena “espainolisten” esku zegoela, eta ni ikuspegi baikorragoa ematen saiatu nintzen. Uste dut une horretan ez nuela konbentzitu, bai ordea handik urte batzuetara Hegoaldera itzuli zenean.

Behin Donostiara heldu ostean, elkarrekin proiektu ugari ibili ginen: Udako Euskal Unibertsitatean, Euskal Herrian Euskaraz-en, Alde Zaharreko Arrano Beltzan, Herri Batasunean, erakunde honek laurogeigarren hamarkadaren erdian hartu zuen bidea argitzen, Fresnora egindako bidaian, EHUn sartzeko lagundu nionean, eta abar luze bat. Honek


guztiak bion arteko konfiantza sakondu zuen eta hitz-aspertu luzeak burutzen genituen. Azken urtean, tamalez, Joseba espetxeratu ostean nahiko ahuldutxo joan zaigu gure Jose Luis, artikulua aberatsak idazten jarraitu zuen arren, ARGIAkoak lekuko.

Txillardegik Euskal Herriari egin dizkion ekarpenak inork ez ditu ukatuko. Berea, abertzalegintza zen, dena bere herriaren alde ematea. Hala ere gizon handi honek zerbaitekin sufritu baldin bazuen Euskaltzaindiko kide osoa izateko ezetza eman ziotenean izan zen. Bere baitan ez zen sartzen euskararen alde, modu zientifikoan eta literarioan, hainbeste eman ondoren, nola ez zitzaion onesten euskara indartu eta hedatu lanean ari zen erakunde horretan. Nire uste apalean, Euskaltzaindiak aukera paregabea galdu zuen erakunde hori prestigiatzeko *Txillardegia* bezalako pertsona jakintsu eta langilearekin. Hala ere, bere obra handia, euskal politikan, literaturan, linguistikan eta kulturaren, hor dago, zenbaitzuen miseriak agerian jartzeko, baina kaltea eta samina inork ez dizkio kenduko gure gizonari.

Agur eta ohore, Jose Luis!



1979an Bergaran, Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarrean.



DANI BLANCO

Gorputz eta anima

Juan Martín Elexpuru

Gutariko askorentzat Txillardegi benetako zuzendari espirituala izan zen gure gazte denboran, *Branka, Huntaz eta Hartaz, Leturia* edo *Elsa Schellen* irentsi egin baikenituen irakurri baino gehiago.

1978tik aurrera, sarri gonbidatu genuen Bergarako UNEDera. Soziolinguistika, Fonetika edo Azentua bezalako gaiak jorratzen zituen sasoi hartan. Beste gai guztiak bezala, sakon, gorputz eta anima.

Teoria eta praktika uztartu zalea zen, eta Euskal Herrian Euskaraz taldearen sorreran ikusi genuen laster. Ordurako euskal letretako izen nagusietarikoa izan arren, militante xume baten gisa ezagutu genuen herriz herri egiten ziren bilera eta ekintzetan.

Gerora, Aralar sortu eta alderdian sartzera gonbidatu genuenean, berehala eman zuen pausoa, nahiz eta militantzia berria batere eroso ez gertatu bere eguneroko bizitzan. Garbi zuen borroka armatuak mesede baino kalte gehiago egiten zuela dagoeneko,

eta zerbait egin behar zela. Kide bat gehiago zen bileretan, eta zerrendetarako izena emateko ere ez zuen eragozpenik izaten. Maite zuen politika; sarri geratzen ginen pil-pilean zeuden gaiez mintzatzen. 2007an utzi zuen alderdia. Ez zitzaion batere gustatu hauteskundeetan Ezker Batuarekin elkartu izana. Garai bateko eztabaiden zauriak haragi bizian zituen oraindik, eta “felipeak beti felipe” izaten jarraituko zuten.

Makal ibili da azkenaldian. Zer zeukan galdetuta, *zabartrosis* erantzun ohi zuen umorez. Kartoizko txartel txukunetan idazten zituen gutunak. Nik jasotako azkenek 2009ko abenduaren bukaerako data dute. Oso interesatuta zegoen Iruña-Veleiako auziaz. Nire liburua eta beste hiru euskal filologoren txostenak irakurrita zeuzkan, eta zera idazten zidan, beste gauza askoren artean: “Hori guztia ikusita, zalantzarik ez diat: ‘grafito’ horiek benetakoak dituk. Eta hor somatzen den euskara euskalki arkaiko bat duk”.

Goitik beherainoko intelektuala izan da Txillardegi. Integrala, jakintza-arlo ugari jorratu dituen, politikan eta beste ezertan bustitzeko beldurrik izan ez duena. Kontzientziak agintzen ziona egiten zuena. Beroa. Heterodoxoa, baina ez nabarmenguraz.

Apala, goxoa, entzuten zekiena, lagun ona. Maitagarria. Nik uste Euskaltzaindiko atea itxi zioten euskaltzainek ez zutela benetako Jose Luis ezagutzen.



DANI BLANCO

Gaitasun biderkatua

Jon Sarasua

Duela bizpahiru urte gure klase batera euskal kazetari bat etorri zen, eta nik ikastaroan esandakoez artikulu bat idatzi zuen. Tartean, *Txillardegi* eta beste batzuei buruzko iritzirik kritikoa batzuk jarri zituen nire ahotan, nik *Txillardegi*ri buruz horrelakorik esan ez nuenean. Noizbait ahoz berari oker hori argituko niola pentsatu nuen, eta nire esker on bihotzekoa agertuko niola. Ez, ez etxean eta ez herrian, gure zaharrak ohoratzea ez da gerorako uzteko zeregina.

Urbeltzi behin entzun nion ingurune euskaldun askotan liderrek arazoak dituztela. Deserosoa egiten zaigu gidatzea eta besteren gidaritza aitortzea. Eta gure arteko gidariak, sarritan, ertzean kokatzen dira denborarekin, gehienetan beren borondatez, beste batzuetan dena delakoa kudeatu nahi dutenentzat deserosoak bihurtzen direlako. Prozesuen erdigunetik, abiatze erabakiorretatik nahiz ertzetik, Txillardegi erreferentzia nagusien sortzaile eta emaile izan da.

Bost hamarraldi. Hori dugu aro baten neurria. Euskararen loraldi modernoaren aroa, ETArek zikloa, kooperatibena, literaturarena eta beste hainbat prozesurena. Belaunaldi progresista izan da aro horren bultzatzaile nagusietakoa, bakarra ez baina. Prozesu sozialak konplexuak izaten dira, eta mila eragin estrukturalen bidez azaltzen ditugu, baina ezer ez da gertatzen pertsona jakin batzuen jenio berezi hori gabe. Gaitasun biderkatua duten pertsonak, azken aldia uste ohi duguna baino eragin handiagoa izaten dute gure historietan. Elur-bolak martxan jartzen dituzte, luzerako ildoak markatzen dituzte, eta desadostasunak agertzen dituztenean ere, nagusitzen den gehiengoak baino usaimen finagoa zutela erakusten du denborak gehienetan. *Txillardegi* horietako bat da.

Belaunaldi progresistaren ekarpenak eta hutsu-neak aztertzeke unea iritsiko da. Euskal progresiaren amets, gaitasun, obsesio eta mozketetan, gure lorpen eta porroten gako asko daude. Gaur ez. Gaur gizon itzela ohoratzeke eguna da. Pertsona adimentsu, libre eta eskuzabal honen oroimenaren aurrean hunkiduraz isiltzea ateratzen zait. Nire sustraia dut, beste sustrai-adar askoren artean. Nire errealitate batzuk, bere adimenaren adar dira. Nire ametsa bere ametsaren zordun da.





DANI BLANCO

Txillardegiren gorazarrean

Emilio López Adán

Hil berri den adiskideaz idazteko, harekin ikasiaz, harekin izan akordioaz, harekin bizi ametsetaz idatzi nahi nuke. Haren gogortzeko eta familiarekin bat egiteko.

Hasteko, *Txillardegi* abertzalea. Hizkuntzan finkatu aberria eta askatasun politikoan oinarritu erresuma. *Garan* emandako azken elkarrizketan esan zuen: "Estatu bat behar da..." etendura puntu adierazgarriekin. Gisa guztiz, independentzia baino gutxiago deus ez, ametsetan behintzat. Eta amets horien peskizan zer bide egin duen!

Hor dugu *Txillardegi* existentzialista, Unamuno, Kierkegaard, Camus eta Sartrearen irakurlea, Carlos Santamariaren ezagutzailea. Zer sentimendu sakon haren sentimendu agonikoa, frankismoaren gau ilunean euskara galtzeaz zelarik, askoren (eta abertzale askoren) indiferentziaz; zer sentimendu humanista norbanakoaren eta herrien patu kontingenteen gorabehera, edo beharbada hain zuzen gaizki garelako, errebolatu behar dela onartzeko eta jende duintasuna askatasunaren bilaketarekin lotzeko.

Jose Luisek bazekien txiripaz zela euskalduna (kontingentzia), euskaldunen egoera historiko zehatz batean (situazioan) bizi zela, eta, pertsona gisa, unibertsaltasun osoaz, bide egokienaren bila ezkeraren

aukera egin zuen, duintasuna eta askatasuna helburu: demokrazia eta sozialismoa, zanpatuen aldeko aukera etikoa (Bertrand Russellen ildotik). Tresna politiko horiekin eman zien erantzuna bere galdera filosofiko-*ei*. *Txillardegi* ezkertiarra zen, ezkertiar demokrata eta antitotalitarioa. Marxismoarekin izan genituen arazotan, bera izan zen lehenetarikoa ikusmolde orokorren eduki totalitarioa salatzeke, eta lehena Merleau-Ponty bezalako izpiritu azkarrak aipatzeko.

Txillardegi idazlea, eta hainbeste idatzi du! Gogora ditzadan Elsa Scheelen, amodioaren absolutua, haren gizona Pierre, herri zerbitzuko emana, eta bien existentzia tragikoa... Belgikan idatzia delako aipatzen dut, bizitzak eman zigunean bera eta beraren familia ezagutzeko parada, bai eta seriooki euskalduntzeko tirria ere.

Gain-azalki, hitz bat haren azken konpromiso politiko desberdinen aipatzeko. Lizarra-Garazi baino lehen gauza izan zen modeloz aldatzeko beharra aldarrikatzeko eta gauza izan da gero modeloaren aldakuntza laguntzeko, beti ezker abertzale zabal baten barnean, egoera tragiko baten erdian, eta konpromisoak hartzeko gai izaki bere bizitzaren lema mantenduz: duintasuna eta errebolta.

Mila esker, Jose Luis.



1979an Anoetan, HBren mitinean.

Ardo botilak isuna ordaintzeko

800.000 EURORI aurre egin beharrean dago Acció Cultural del País Valencià. Erakunde horrek egindako eskaerari erantzunez, 2010ean *Mugarik gabeko telebista* izeneko sinadura bilketa egin zen Euskal Herrian. Madrilgo Gorteetan 500.000 sinadura aurkeztu nahi ziren, Espainiako Estatuko telebista autonomikoen seinalea euren muga administratiboetatik kanpo ikusi ahal izateko. Alegia, Nafarroan ETB ikusteko, Valentzian TV3 eta Asturias-Leonen TVG. Aise gainditu zen sinadura kopurua eta Diputatuen Kongresuan segitzen du

eskaerak atzera-aurrera. Erakundea ordea, ez da geldirik egon eta hedagailuak paratu zituen Alacanten, Valentzian eta Castellón TV3 Kataluniako telebista ikusi ahal izateko. Valentziako Generalitateak 300.000 euroko bi isun jarri zizkion Acció Cultural del País Valenciàri; interesak kontuan hartuta 800.000 euro ordaindu behar. Erdia dauka ordaintzeko eta Donostiako Espai Catalunya Topalekuak eta Porrerako (Tarragona) Vall Llach upeltegiak *Sorgindu zaitez-Embruixa't* kanpaina jarri dute abian isuna ordaintzen laguntzeko. Porrerako upeltegia Lluís Llach kantariak 1992an sortutakoa da eta Priorateko Jatorrizko Izendapenaren



barruan dago. Ardo botila 18 euroan salduko da. 9 euro ardoaren ekoizpen kostuak estaltzeko erabiliko da eta beste erdia isuna ordaintzeko.

Valentziako Gobernuak Acció Cultural del País Valenciàri esan zion telebista ikusteko ipinitako hedagailuak ilegalak zirela. EA alderdiko militanteek duela gutxi adierazi dute Nafarroako Erreniega mendian paratu dutela hedagailua ETB Iruñerrian ikusi ahal izateko. Nafarroako Gobernuak segituan esan du ekintza narratsa, pirata eta legez kanpokoak izan dela. Beharbada zainzuriak, piperrak edo olioak saltzen hasi beharko dugu...

Uemak udal gehiago biltzea du helburu

JOAN DEN ASTEBURUAN egin zuen Uemak, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak, batzar nagusia eta aho batez onartu zituzten 2012rako lan ildoak eta aurrekontua. Aurtengo erronka nagusia "lurgunea" handitzea izango da. Udal hauteskunderen ondoren hogeitaualekin izan dira harremanetan Uemako kideak eta datozen hilabeteetan Ueman sartzeko eskaerak iritsiko direla espero dute. 2012rako lehen tasunen artean ondokoak azpimarratu dituzte: euskararen arnaguneak zer diren eta euskararen normalizazioan zer-nolako garrantzia duen gizarteratzea, udalez udal barne-erabilera planetan sakontzea eta udal administrazioetatik kanpoko esparruetan eragitea —etorriberrien artean, lan munduan eta legezko babesaren bermeetan, besteak beste—.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Krisi ekonomikoa eta nazio subiranotasuna

PPren eskuetan dagoen Espainiako Gobernuak bere politikak zentralizatu nahi ditu; autonomiak dituzten eskumenetatik harago joatea eragotzi nahi du. Areago, eskumen horiek murriztu nahi ditu. Ez du besterik gabe gainerako nazionalitateen asmo soberanisten eta independentisten aurka borrokatuko, saiaturiko da ahal duen neurrian estatu autonomikoa "deskafeinatzen", egungo eskumenen aurkako neurriak inposatuz. Bide horretatik doa PFEZ berria ezartzeko ekimena. Espero dezagun Euskal Herriko foru aldundiak ez direla politika horretara makurtuko eta gure historian askotan erabili izan den foru baimenari helduko diotela, hau da: "Onartu bai, baina bete ez". Gobernu berriak hitzarmen kolektiboen negoziazioa ere zentralizatu nahi du; euskaldunen soldadak larriki kaltetuko lituzke horrek, beherantz egingo bailukete, eta baita lan baldintzak ere, lanpostuak prekarioago bihurtuko lituzkeelako.

Hori da datorkiguna, gure subiranotasun ekonomiko eta politikoa ez dituztelako errespetatzen. Horregatik, garrantzitsua da sindikatuek, alderdi politikoek eta eragile sozial abertzale eta aurrerakoiek krisi garaiari irtenbide duina eskainiko dion euskal akordio nazionalaren alde egitea. Ona litzateke azaleko protagonismoak saihestu, aurreiritziak baztertu, eta elkarriketari eta negoziatioari ekitea.

Subiranotasun ekonomiko eta politikorik gabe pobretzen jarraituko dugu, prekariotasuna handituko da eta nazio izaera gutxitzen joango da guregan. Euskal Herriak eskubidea du bere subiranotasun ekonomiko eta politikoa erabiltzeko. Fronte guztietatik eta aukera abertzale eta aurrerakoi guztietatik norabide horretan elkarren ondoan borrokatzea, "herria egitea" da, Euskal Herri subiranoa eraikitzea da.

Juan Mari Arregi




Lerro hauen arimatik, eskerrik asko bihotzez

TXILLARDEGIK jarraitzen zuen izaten "gazte ero haien" artekoa, seguruenik bere matxino senak, jakinduriak eta izateko grinak bes-telako tarterik uzten ez ziotelako. Esamoldea bere testuingurura eta bere pentsamoldera eramanda, gazte ero horien erraietatik erditu zirelako Euskal Herria eta euskaldunak beste era batera ikusteko molde berriak; eta gazte ero horien izaerak eta bultzadak ekarriko dutelako, ekartzekotan, berak amestutako Euskal Herri euskaldun, independente eta solidario hori.

Eta bai, urtebete pasatxo dela "La Banda" titulupean ARGIA idatzi zuen bere azken artikuluan (2010-12-12, 2256. zkia) jarraitzen zuen pentsatzen etorkizuna gazte ero horien kontua izango dela beti: "Belaunaldi berriak, beti, aldapan gora, eta belaunaldi zaharra ukatuz sortzen dira. Bizi legea da edo Historia legea, nonbait".

XX. mendeko pertsona handi bat Euskal Herriko historiara pasatu dela, hori da lehen-lehenik esan litekeen oinarritzakoena eta seguruenena. Eta ez edonola, bere ekarpenak itzal luzea utzi baitu alor publikoaren hainbat arlotan: hizkuntza, soziolinguistika, literatura, politika... Gaur egungo euskaltasunetik nola ulertu Euskal Herria euskararik gabe? Bada, hori posible ei zen garai batean, norbaitek, norbaitzuk ate berriak zabaldu zituzten arte. Eta bistan da oraindik, euskaldunok, arriskuan garela; ezin horri kateatua bizi, baina bai horrek akuilaturik. Horrexegatik, posmodernitate eta kosmopolitismotik esanak esan, eta *Txillardegik* uste zuen gisan, independentzia, estatua, oraindik ere hizkuntzen babesleku seguruenetakoa da munduan.

Pentsatzekoa da pozik izango zela Euskal Herrian sortu den egoera berriarekin, berak sortutako



DANI BLANCO

ETak borroka armatua amaituta eta zentru-ezkerreko abertzaleak elkarrekin eta arrakastatsu, goreneko gobernu lanetan eta potentzialitate handiarekin.

Merezi duen aitortza jasotzen ari da Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*, bai bere osotasunean egindakoagatik, bai hizkuntza eta literaturaren eremuan lagatakoenagatik. ARGIA ere bere esker on sakona adierazi nahi dio: lehen-lehenik, lerro hauetako hizkiak nola lotu eta esan horrek, euskara batuak, biziraupena eman diolako gureari eta baita euskarazko beste hainbat hedabideri ere. Eta, nola ez, gure irakurlearentzat astekariko orrialdeetan, urte luzez eta musu truk, utzitako idazlan zorrotz eta sentikorrengatik.

INIGO URKULLU EAJren lehendakari gai ere izan daitekeela entzun nion PSEko Andoni Unzaluri Euskadi Irratiko tertulian. Egibarrek seko moztu zion, hori debekatua zegoela, eta orain ez zela hortaz hitz egiteko garaia. Baina *Deia*-k ere ez zion aterik itxi aukera horri joan

den asteleheneko edizioan, Humberto Unzetak sinatutako kronikan: "Kinieletan hainbat izen dira, baina alderdi barneko zein kanpoko begirada ugari daude Urkulluren gainean, batez ere azken urte hauetan irabazi duen lidergoagatik. Bere aukera sinesgarria da, nahiz eta Sabin Etxean jakitun diren, bi buruko agintaritzaren araua medio, alternatiba honek arazoak sortuko litzukeela".

Tira, izen gehiago ere badira, aipatuena Josu Erkoreka bera, eta Egibarrek denbora badela badio ere, gutxi da eta konturatu orduko izango gara EAEko lehendakari gaien izenen dantzan. Udaberria ondo sartuta bukatuko da EAJren lurralde zuzendaritzen hautaketa prozesu hau, eta ordurako arrain guztia salduta egongo da Sabin Etxean, dagoeneko ez badago.

Iñigo Urkullu hautatu dute EAJko EBBko lehendakari bigarren agintaldi baterako eta lehen lau urteen ondoren, esan liteke Urkulluk korrante jeltzaleak kontrolpean dituela. Edo bestela esanda, berak eta bereek nagusitasun lasaia lortu dutela.

Ez da lorpen makala kontuan hartuta euskal politikan datorren garai berria, dagoeneko hasi den garai berria. Eta hau bai, azken bi hauteskundeetako jokoak erakusten duenez, hau hautuen garaia izango da. Baina ez Urkullurentzat bakarrik, baita besteentzat ere. Beren erronkak, hiru esparru nagusitan sailkatu dituzte jeltzaleek: krisia, bakegintza eta autogobernua. Krisiari eta ekonomiarik begira, ez dirudi PPrekin gaizki moldatuko direnik; bakegintzan PSE eta ezker abertzalearekin lotu ditzake oinarri batzuk. Eta autogobernuari begira, posible ote akordiorik ezkerreko soberanismoarekin?



Haiti 2010-2012: ez laguntzarik, ez esperantzarik

Haitin 2010eko urtarrilaren 12ko lurrikara hain hilgarri suertatzea hango hazkunde ereduak eragin zuen: berrehun mila hildako (edo gutxiago, edo 300.000... oraindik datu argirik ez da) eta herrialde osoa txirtxilatutik. Baina potentzia handiek laguntza hazkunde eredu oker berarekin antolatu dutenez, Haitik okerragorako bidean darrai.

ERREFUXIATU IZENA EZ DA POLITA, zeukaten guztia galdurik kanpalekuean babestu direnei orain agentziek *Internally Displaced People* (IDP) deitzen diete, herrialdean bertan lekualdatutako jendeak. Lurrikararen bigarren urteurrenean oraindik 550.000 haitiar bizi dira kanpalekuean. Beste milioi bat baino gehiagok alde egin dute horietatik bi urteotan, errefuxiatuez okupatzen den Nazio Batuen Erakundearen agentziak dioenez. Baina non kokatu ote dira?

“Inork ez du kontrolatu nora jo duten: hemen helburua da erakustea kanpalekuak ixten ari direla, helburua ez da estrategia horren ondorioak aztertzea. Asko itzuli dira segurtasunik ez duten etxe hondatueta; beste askok babeslekutzat hartu dituzte *T-shelter*ak [erakunde humanitarioek eramandako zurezko etxola prefabrikatu arinak] hondakinen artean edonon ikus daitezkeenak; eta beste batzuk bildu dira ofizialki existitzen ez diren kanpalekuean”.

Phillip Wearnek idatzi ditu aurreko lerroak *New Internationalist* aldizkarian argitaratatu duen “*Haiti two years on: beyond relief, beyond belief*” artikuluan. Mugimendu sozial haitiarrei laguntzen dien Haiti Support Group erakundean ere ari da Wearne.

Ez da Wearne ez lehena eta ez bakarria salatzen errefuxiatuak kan-

palekueetatik sarritan bota egin dituztela, bai txabolategiak zeuden eremuetako lurjabeek edo bai auzoak “txukunago” ikusi nahi dituzten udal arduradunek. Polizia eta armada ere erabili dituzte lantegi horretan. Moldatu ote daiteke horrela arazo humanitario bat?

Nazio Batuen Erakundeko buruzagiek esana da Haitiko arazo humanitarioak konponbide bakarra garapenean daukela. Zein garapen mota, ordea? Wearnek dioenez, bi eredu landu dira Haitin azken 50 urteotan. Lehenik, eta luzaz, Duvalierrek ezarritako muturreko kapitalismo basatia, diktadoreen senitarteko eta lagunek kudeatua, errukigabea. Eta ondoren bai Jean-Bertrand Aristidek eta bai René Prévalek –AEBek eta Europak horretara behartuta, nahi bada– erabilitako formula neoliberalak. Bi sistemek huts egin dute.

Porrot horren eskaparatea dateke Port-au-Prince hiriburuko Jean-Marie Vincent parkea. 1994an paramilitarrek asasinatu zuten apaiz ezkertiarren izena darama. Parke publiko honetan baziren errefuxiatuak 2010eko lurrikararen aurretik.

Hiru hamarkadatan 2,5 milioi heldu baitziren ihesi hiriburura. Horrela, populazioa lau halakotuta, Port-au-Prince bilakatu zen munduko hiri jendetsuen, nahasien eta

Haitiko hiriburukoa etxegabeen lanak eta nekeak kontatzen dituen *Youphil* blogetik hartu dugu Clementine eta bere alaba biltzen dituen argazkia, Giordano Cossuk egina. Jean-Marie Vincent parke inguruan dagoen Delmas-2 kanpamenduan tiro hotsak entzun dira, astean hiruzpalau alditan gertatzen ei den moduan, eta argazkian ageri diren beste herritarrek bezala ama gaztea korrika hurbildu da babes bila Haitiko Babes Zibilak daukan kaserna atarira: hormaren gainean ikus daiteke txarrantxa. 2011ko abuztu hasieran egina da argazkia, kanpalekuean oihalezko etxoletan bizi diren haitiarrak *Emily* ekaitza noiz iritsiko zain zeudela. Alferrik esatea da ez zirela ezer prestatzen ari, zerekin. Kazetariari haitiar batek txiste hau kontatu zion: “Ekaitza Haitira hurbildu da, begiratzen dio, eta esaten du: ‘ai, hor jada egona naiz’ eta beste norabait doa”.

anarkikoena. Etxolaz bete ziren zelai eta malkor. Berde kolorekoa zen oro desagerturik, aski zen eurite bat edo haizetea, Karibean hain usu gertatzen direnak, lokatzak dena maldan behera errekarera eramateko. Azkenik, lurrikararen eguna heldu zen: “Naturak eragin hondamendiak 35 ordu iraun zuen, baina inork pentsa ezinezko heriotz kopurua eragin zuen hondamendi ez-naturalak 35 urte zeramatzen egosten”.

Oker egin genuen, oker darraigu

Haitin ere bizi da jendea, ordea. Phillip Wearnek ikusi ditu Jean-Marie Vincent kanpamenduko biztanleak inguruko muinoetako etxe suntsituen aurrietatik hondakinak hartuta beren sasi-herrixkako bideak egonkortzen. Lurrikararen ondorengo laguntza handiena, atzerrietatik jina baino askoz handiagoa, batak besteari emandakoa izan da eta, haitiarrak haitiarrari.

Kanpalekuan batzordetan banatzen da agintea eta lanak, ur erretenak ebaki eta artatzea, edateko ura ekarri eta familien artean zabaltzea, osasun eta garbitasun ikastaroak ematea... “*Lé ou bezwen, se ou k pou machè*” diote kreoleraz, beharrean baldin ba zaude, zeuri dagokizu lehen urratsa ematea.

Bertako mugimendu sozialei laguntzen diete Gobernuak Kanpo-



ko Erakunde atzerritarretan aurre-rakoiene. Hala aurkitu du kazeta-riak Dubique Kobel medikua, emazte Nadègerekin batera *Zanmi Lasante* –Osasunaren Lagunak, kreoleraz– erakundearen babesean ari dena, aurretik Kuban entrenatu-ta. Doktoareak kezka berezia dauka oraindik kontrolatu ezin duten kole-rarekin. 7.000 jende hil eta 700.000 gaixotu dituen kolerarekin.

Aldiz, Jean-Marie Vincent par-kekoaren oso bestelako irudia ikus daiteke Aireporturako bidean. Hor milaka ageri dira USAIDekin bate-ra beste GKE handiek antolatuta-ko *T-shelterrak*. Hitzak daraman “T” horrek *transitional* esan nahi omen du ingelesez, baina bizileku-tzat eman zaizkie errefuxiatu

zelaietatik alde egin nahi zuten herritarrei. Gela bakarrek txabola ahulok... zenbat iraungo dute? “Engainatu dezakete eguzkia, baina euria ez dute engainatuko”, diote haitiarrek.

Lurrikararen osteko 18 hilabete-tan benetako 4.596 etxe eraiki dira herrialdean, 12.281 gehiago zeuden planifikatuta. Hilabete horietan 94.879 *T-shelter* ipini dituzte, 113.399 gehiago jartzeko planekin. Alferrikako gastua dela diote etxe eskubideen aldeko militanteek, estatuak hobe lukeela diru hori etxe sozialetan gastatu. Horretarako nazioarteko laguntza Haitiko admi-nistrazioaren hodieetatik bideratu beharko litzateke, baina ez da hori agentziek hautatu sistema.

Haitiko administrazioaren ustel-keria eta funtsik eza argudiatuz, azken bi hamarkadotan bertako k administrazioaren gainetik antolatu da nazioarteko laguntza. Horrela, lurrikararen aurretik ere 10.000 GKE atzerritar ari ziren lanean Haitin: munduan ez da biztanleko GKE indize altuagoa daukanik.

Txiroari lagundu nahi zaio bere asmo edo nahiez galdetu ere egin gabe. Bai laguntza humanitarioa antolatzean eta bai politika ekonomi-ko neoliberal ezartzean, biak pakete berean inposatu baitzaizkie haitiarrei.

Wearnek dioenez, “plan neoliber-al horren arrastoak denetan ageri dira, inportazioen zergen mozketetan, zerbitzu publikoen pribatiza-zioan, industria eta merkataritza araugabetzean, atzerrirako ari diren industria bakanetan dagoen gutxie-neko joralean...”. 100 haitiarretatik 85 gutxieneko soldata baino gutxia-gorekin bizi dira. Horregatik deitu ian diote American Plan delakoari *Plan Lanmò*, Heriotza Plana.


Azkenean, 33 urteren buruan, arroz, azukre, zerriki eta oilokiz bere burua asetzen zuen Haiti bihurtu zuten AEBetatik ekarritako elika-gaien menpeko. 2011ean Bill Clinton-ek berak aitortu zuen AEBetako Kongresuan: “Oker egin genuen. Egutero bizi behar dut ondorioak ikusten, Haitik galdu duela bere jen-dea elikatze ahalmena. Nik egin nuenagatik, ez beste inork”.

Baina gauzek berdintsu diraute. Orain Clinton dago Haiti laguntzeko nazio-arteko batzordearen buru... lehengo politika bera ezarriz. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Kike Diez de Ulzurrun Sagalā

Ajuria Enea

Euzko Alderdi Jeltzalearen (EAJ) xede nagusia izan da joan deneko hogeita hamar urte honetan. Eta erdietsi du, luzaro. EAJren ekinbide guztiaren jomuga nagusia Eusko Autonomia Erkidegoa izan baita; han egin du lana, han bildu du uzta. Nafarroaz ahaztu egin zen. Ez zuen indar handiegirik, eta iragan mendeko 83an, gainera, jende gehiena alderditik bota egin zuen. Besteak beste, horrexek eragin zuen EAren sorrera; harez geroztik, jeltzaleen alderdian inor gutxi gelditu zen Nafarroan eta noraezean ibili da. Franco hil ondoren, Araban ere ez zegoen jeltzale asko, baina Nafarroan ez bezala, han bai, han EAJk alimaleko ahalegina egin zuen, eta horrek emaitza onak eman zizkion. Garai hartako jeltzale buruek ez dute sekulan azaldu zergatik jokatu zuten horren desberdin bi herrialdeetan. Urkulluren alderdiarentzat, zer erranik ez, Ajuria Eneak helburu nagusia izaten jarraitzen du, eta Nafarroari dagokionez, Geroa Bairen aldeko apustua ongi atera zaio. EAJk, dena den, aski ongi daki (edo jakin beharko luke), bere kabuz aurkeztuz gero, ez duela nafar Parlamentuan ere ordezkaritzarik lortuko, eta Geroa Baiko boto-emaile gehien-gehienak ez direla inola ere jeltzaleak. Koalizio berriaren helburu nagusia, bitartean, behar adinako indarra metatzea da, Nafarroan aldaketa eragiteko. Zer gerta ere, egitura zabaldu eta sendotzeari emanak daude eta, udaberrirako, batzar irekia antolatuko dute, ahalik eta talde gehienen iritziak jasotzeko, baita koalizioaren inguruan dabilen jende afiliatu gabeari Geroa Baiko kide izateko aukera emateko ere. Handik eta hemendik iritsi zaizkio boto-emaileak; ez gutxi, Alderdi Sozialistakoak, eta PSN zer ateka gaiztotan malkorturik dagoen ikusita (UPNren morrontzapean, elkarri labankadaka), ez litzateke harritzekoa izanen giro horretako jende gehiago biltzea.

Ajuria Enea, bitartean, ez da Ezker Abertzalearen xede nagusia izan azken 30 urte honetan. Orain, bai, ordea. Gasteizko eraikinean pausatua dute begirada. Ezker Abertzaleko hango eta hemengo buruzagiek ez darabilte beste hitzik: Ajuria Enea.



DANI BLANCO

Eraikin horri omen darion lilurak ederki xoraturik dabiltza, EAJ betidanik liluraturik ibili den bezala. Zilegi bekio Ezker Abertzaleari aurkikuntza hori, baina, Nafarroari dagokionez, espero dezagun ez jokatzea duela 30 urte EAJk jokatu zuen bezala; hau da, Nafarroaz ahaztea. Baina, kasu, tamainako hanka sartzeko litzateke Nafarroan hogeita hamar urtez izan duten jokamolde antzuarik eustea. Indar handisko hura alferrik xahutu ondoren, eta udaletan euskararen alde egindako apustu zintzoa gora-


«
Ajuria Enea ez da Ezker Abertzalearen xede nagusia
izan azken 30 urte honetan. Orain, bai, ordea. Gasteizko
eraikinean pausatua dute begirada. Ezker Abertzaleko hango
eta hemengo buruzagiek ez darabilte beste hitzik: Ajuria Enea.
Eraikin horri omen darion lilurak ederki xoraturik dabiltza,
EAJ betidanik liluraturik ibili den bezala
»

behera, ez diote inolako etekinik atera, ez baitira gauza izan ETAren estrategia bidegabeari aski errateko. Ondorioz, bertzelako Nafarroa nahi duen jendea izan da galtzaila; haiek barne. Orain, azalez behintzat, itxuraldaturik itzuli dira, baina nekez egingen dute aitzinera Aralarren eta EAren ekarpenak zokoratzen badituzte. Izan bedi Ajuria Enea, beraz, Ezker Abertzalearen xede nagusia; baina, aldi berean, izan bedi egiazki Nafarroako Diputazioaren Jauregia, azken eraikin hori ere Geroa Bairen jomugan dagoen bezala. Nor bere zokotik zentzuz eta irekitasunez lan eginez eta beste indar batzuekin elkarlanean soilik etorriko baita Nafarroako gobernua aldatzeko aukera. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Atxurra Hotela

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Arronategi auzoa, z/g
Bermeo, BIZKAIA

www.hotelatxurra.com

1



Esne Beltza

3 kolpetan

5 CD+DVD opari

www.baga-biga.com

2




11 itzulpen

2012
10 agenda opari

Ilarraberri 6 - 4. B
Donostia GIPUZKOA

www.11itzulpen.com

3



Artez euskara zerbitzua

2012
10 mahai tako opari

Luzarra 10 - 2 Sol.
Bilbo BIZKAIA

www.artez.net

4



Okatxu

2 kamiseta opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2304. Argia)

ATXASPI HOTELA

- Narcisa Urreiziti Basterretxea (Mutriku)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Inaxio Agiriano Bergaretxe (Donostia)
- Joseba Landaluze Moraza (Gasteiz)
- Alaitz Katarain Azaldegi (Idiazabal)
- Juan Jose Belamendia Senperena (Azkoitia)

OINKARI DANTZA TALDEA Ari du DVDa

- Maria Rosario Azpiroz Arrillaga (Tolosa)
- Kepa Zamalloa Ozerin (Oiartzun)
- Mikel Garmendia Aizpuru (Bilbo)
- Javier Duoandikoetxea (Arrigorriaga)
- Jokin Ginea Kortajarena (Galdakao)

ARTEZ EUSKARA ZERBITZUA Urteagenda

- Juani Zabaleta Lazkano (Urretxu)
- Maritxu Uria Eizagirre (Zarautz)
- Gotzon Apaolaza Bernedo (Lasarte-Oria)
- Karmele Señorena Arzadun (Donostia)
- M Angeles Azpiroz Harrizurieta (Barañain)
- Unai Bergaretxe Leibar (Arrasate)
- Uxune Iriondo Urbiztazu (Getxo)
- Xabier Iriarte Ansorena (Hernani)
- Igor Jimenez Honrado (Elorrio)
- Haritz Eguren Urrestarazu (Zerain)

Taula eta Egutegia 2012

- Iñaki Osoro Otardui (Eibar)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

ginea

argia

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralerara 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea





ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1
Zumartegi industrialdea
☎ 943 37 11 50
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
www.atxegajauregia.com

